

KUDEAKETA MEMORIA 2022

Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.
Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, EA
(Visesa)



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA ETA
GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES



VIESA

AURKEZPENA

Iñaki Arriola López, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburua eta Visesako presidentea.
Carlos Quindós Fernández, Visesako zuzendari nagusia.

Etxebizitza duina eta egokia izateko aukera oinarrizko eskubidea da, eta, hori lortu ostean, beste eskubide batzuk lortzeko abiapuntua da. Gainera, oro har, herritarren bizi-kalitatea sustatzeko funtsezko faktorea da.

Visesa helburu horretan dihardu lanean, eta are gehiago Ukrainako inbasioak eta pandemiaren osteko inflazioak baldintzatzen duten nazioarteko testuinguru honetan. Egoera horrek erakunde eta familien egunerokotasunean eragiten du, eta, are gehiago nabarmentzen du zer garrantzitsua den etxebizitza-politika publikoen bidez herritarrek etxebizitza prezio eskuragarrian izateko beharrari erantzutea. Hori guztia kalitatezko parke publikoaren bidez lortu behar da.

Ziurgabetasuneko testuinguru horretan, Visesak bategindu **Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala 2022-2036** ekimenarekin. Akordioa Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak bultzatu du, eta erakunde publiko hau horren parte da, hain zuzen ere. Ituna 90 erakunderen artean sinatu da, eta sektorean eragina duten eragile guztiak lerrokatu nahi ditu Euskadik etxebizitzaren arloan dituen helburuak ahalik eta azkarren lortzeko, eta, batez ere, etxebizitza eskubidea benetako eskubide egiteko.

Horretarako, erabaki zabal honek adostasunezko etxebizitza-politika koherentea ezarri nahi du epe-luzeari begira, etxebizitza Euskadiko ongizate sozialeko ereduaren zutabe gisa ezartzen duena osasunarekin eta hezkuntzarekin batera. Alokairu eskuragarriko parke publikoa hedatzea, dagoeneko dagoen parke publiko eta pribatua birgaitzea eta merkatu librean eraikitzen jarraitzeko bermea dira Visesaren lehentasunak.

Euskadiko etxebizitza publikoko politikek, gainera, balio handiko tresna dute: **2021-2023 Etxebizitzaren Gida Plana**. Errenta xumeak dituzten familiek alokairu eskuragarriak izateko jarduketan gida da, eta eraikin eta etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzearen alde egiten du birgaitzearen bidez. Horretarako, Etxebizitzaren Itun Sozialak helburu zehatzak ezartzen ditu, eta epe-laburrean betetzeko asmoa du.

Ekosistema honetan alokairuko babes publikoko etxeen eskaintza areagotu behar da, eta, Visesak, alokairuko etxebizitza babestuak sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoa den aldetik, funtsezko funtzioa betetzen du. 2022an alokairuko 236 etxebizitza berri egiteko obrak hasi ditugu Gasteiz, Amurrio eta Santurtzin, eta azken horretan, saltzeko beste 32 eraiki ditugu. Aldi berean, jabeei salmentan dauden azken sustapen batzuk eman dizkiegu: Babez ofizialeko 16 etxebizitza Azkoitian eta prezio tasatuko beste 104 etxebizitza Zorrotzaurren (Bilbo). Horrez gain, 125 familiek lortu dituzten alokairuko bizitza sozialak Iturribarrin (Getxo) eta 14 familiek Azkoitian.

Urte amaieran 16.244 etxebizitza babestu amaitu ditugu Euskadin, eta egia bihurtu dugu gure jarduera alokairuko etxebizitzaren sustapenera bideratzeko asmoa. Horretan jarraitzen dugu lanean, eta garrantzi handiko esparruetan proiektuak abiarazi ditugu, esaterako, **Boluetan eta Sestao Vega-Galindon**. Sustapen horien eraikuntza aurrera doa: Boluetan

alokairuko 144 BOEren espedientearen sailkapena egin da (2. fasea), eta Sestao Vega-Galindon 180 BOE egiteko obrak hasi dira, horiek ere errentamendu-araubidean. Halaber, EBko Next Generation Funtsen bidez, Espainiako Gobernuaren Errekuperazio, Eraldaketa eta Erresilientzia Mekanismoaren eta Eusko Jaurlaritzak bideratzen dituenak, Visesak alokairu sozialerako 1.140 etxebizitza babesturen sustapena ari da finantzatzen.

EBko Next Generation Funtsak, birgaitzearen esparruan, aukera ona izan dira 2022an pertsona eta familia askorentzat, horien etxebizitzaren baldintzak hobetzeko eta bizi-kalitatea hobetzen lagundu dietelako. Urte horretan zehar, Visesa birgaitze-bulego bihurtzeaz gain, erakunde laguntzailea izan da eraikin eta etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko hainbat programetan. Sei hilabetetan Euskadiko 1.912 etxebizitzetan eragin positiboa izango duten laguntzaeskaerak jaso ditugu.

Horrez gain, 2022an aurrerapenak egin ditugu gure proiektu handietan, bai eta berrikuntzaren arloko gure jardueran ere. Modu ofizialean **SmartEnCity** Europako proiektua itxi dugu, eta, horren bidez, Gasteizko Koroatze auzoa birgaitu dugu euskal hiriburuan ekainaren amaieran egin zen Biltzarrarekin bat eginez. Ekimen horretan, Visesak **Prize** aitortpena lortu zuen Quality Innovation Awards-QIA nazioarteko fasean.

Berrikuntzaren arloan, Visesak aurrera egiten du etxebizitza babestuak eraikitzeke modu berriak bilatzeko, ekoizpena hobetzea eta etxebizitzaren kalitate-maila hobea lortzea ahalbidetzen dutenak. Zentzu horretan, Visesak bat egin duen iraultza teknologiko eta digitalaren esparruko abangoardia da industrializazioa. Ondorioz, **elkarrizketa lehiakorra** sustatu dugu Sopelako alokairuko babes ofizialeko 33 etxebizitza sustatzeko proiektua idazteko, horren zuzendaritza fakultatiborako eta eraikuntzaobrak egiteko, **industrializazioprozesu eta sistemekin**.

2022an erronka handiei egin behar izan diegu aurre, eta antzera gertatuko da datozen urteetan. Horretarako, ESG irizpideekin (Ingurumenekoak, sozialak eta gobernanzakoak) lanean jarraituko dugu, euskal herritarrek gero eta kalitate handiagoko etxebizitzako parke publikoa eskura izateko, nazioarteko estandarrei jarraituz.

AKZIODUNAK ETA ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

Visesaren gaur egungo kapital soziala 37,2 milioi eurokoa da, eta titulartasun-banaketa hau du:

Administrazio Kontseiluan gure akziodun guztiak daude ordezkaturik:

Eusko Jaurlaritza (presidentea, presidenteordea eta 4 kide).

Kutxabank (2 kide).

Laboral Kutxa Kreditu Kooperatiba (kide 1).

Halaber, Visesako zuzendari nagusia bertaratzen da (hitza du, baina botorik ez).



HURBILTASUN KONPROMISOA – NON GAUDE

Euskal Autonomia Erkidegoan ematen ditugu gure zerbitzuak. Bulego nagusi bat eta 3 lurralde-bulego ditugu herritarren aurrez aurreko arretarako:



Bulego nagusia

Gamarra Atea 1A, 2. (El Boulevard eraikina – sarrera Zaramaga kaletik). 01013. Vitoria-Gasteiz.

Arabako herritarren arretarako bulegoa

Gamarra Atea 1A, behea. (El Boulevard eraikina – sarrera Zaramaga kaletik). 01013. Vitoria-Gasteiz.

Bizkaiko herritarren arretarako bulegoa

Trenbideko etorbidea 38, behea. 48012. Bilbo.

Gipuzkoako herritarren arretarako bulegoa

Errotaburu pasealekua 1, 7. 20018. Donostia/San Sebastián.

Aurrez aurreko arretarik behar ez bada, honako hauek dira kontaktuak:

Arabako BAB

Tel.: 945 214 038
gasteiz@visesa.eus

Bizkaiko BAB

Tel.: 946 612 620
bilbao@visesa.eus

Gipuzkoako BAB

Tel.: 943 326 340
donostia@visesa.eus

Bulego nagusia

Tel.: 945 214 050
visesa@visesa.eus

Ordutegia

- Urritik maiatzera: Astelehenetik ostegunera: 8:30-14:00 eta 15:00-16:30 / Ostiraletan: 8:30-14:00
- Ekainetik irailera: Astelehenetik ostiralera: 8:30-14:00

Visesaren saldu ondoko arreta zerbitzua

Tel.: 900 21 21 23
sap@visesa.eus

Ordutegia

- Urritik maiatzera: Astelehenetik ostiralera: 8:30-20:00
- Ekainetik irailera: Astelehenetik ostiralera: 8:30-14:00

GURE HISTORIA

Honako hauek dira gure bilakaeraren mugarri nagusiak:

- 1990** Vivienda y Suelo de Euskadi SA – Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA (Visesa) sozietate publikoa sortu zen.
- 1992** Gure jardueraren hasiera operatiboa.
- 1994** Lehenengo sustapena entregatu genuen: 373 salmentako babes ofizialeko etxebizitza (BOE) Intxaurrondon (Donostia/San Sebastián).
- 1996** Ziurtapen energetikoa gure sustapen guztietan txertatu genuen.
- 2000** BBK, Kutxa, Vital eta Laboral Kutxa gure akziodunei atxiki zitzaizkien, eta Orubide eta Alokabide sozietateak sortu ziren (Visesaren % 50eko partaidetzarekin).
- 2000** ISO 9001 ziurtapena lortu genuen, kalitatea kudeatzeko sistemagatik.
- 2002** EAEko etxebizitza hutsaren mobilizazio-programa hasi zen (Bizigune programa).
- 2003** EHAEOn saria eraikuntza-obra onenari: 168 gizarte-etxebizitza Lakuan (Vitoria-Gasteiz).
- 2005** Eusko Jaurlaritzak Zilarrezko Qa eman zigun, kudeaketaren bikaintasunagatik.
- 2005** ISO 14001 ziurtapena lortu genuen, ingurumena kudeatzeko sistemagatik.
- 2007** Babes publikoko 10.000 etxebizitza hasia lortu genuen, eta 5.000 etxebizitza eskuratu genituen EAEn.
- 2008** Euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketagatik Zilarrezko Bikain ziurtapena.
- 2008** Bermeoko 50 BOEn sustapena IISBE (Internacional Initiative for Sustainable Built Environment) erakundeak hautatu zuen "Eraikin Jasangarrien Munduko Konferentzian – SB08" Espainia ordezkatzeko.
- 2009** EHAEOn Hirigintza Arkitektoen Euskal Herriko Elkarteak saria eman zion Boluetako gure proiektuari, "Hiria, Urbanismoa eta Ekologia" lehiaketaren XI. edizioan.
- 2010** Aedipe-Human- Capital Humano saria pertsonengan oinarrituriko berrikuntzari (Administrazio Publikoen kategorian).
- 2010** Eskrituratutako 10.000 babes publikoko etxebizitza ematera iritsi ginen.
- 2010** Visesak Salburua auzoan sustatu zituen 432 etxebizitza babestuen PIME's proiektua hautatu zuen Europako Batzordeak I+G+b 7. Programa Markoaren barruan, haren egikaritzea kofinantzatzeko, egoitzarako garapen jasangarriaren eredu gisa.
- 2010** OPEN HOUSE proiektua hautatu zuen Europako Batzordeak eraikinen jasangarritasuna ebaluatzeko Europako metodologia garatzeko eta ezartzeko I+G+b 7. Programa markoaren barruan. Programa hori 2013an itxi zen.
- 2011** Babes publikoko etxebizitza amaituen urteko errekorra -5.473 etxebizitza-, Visesari dagokio kopuru osoaren herena.
- 2011** Visesa eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) Arkitektura Sailak lankidetzara hitzarmena sinatu zuten industrializazioari eta babestutako etxebizitzari buruzko tailer bat eta ikerketa talde bat martxan jartzeko.
- 2012** Zerbitzu Energetikoen Prestazioa jarduerari ekin genion, etxebizitzan 400 baino gehiago jaberekin kontratuak sinatuta.
- 2013** Eraikuntza jasangarriari saria: Gaztela eta Leongo Juntaren IV. saria, egoitzako etxebizitza kolektiboaren kategorian, Bermeoko 50 salmentako babes ofizialeko etxebizitza (BOE) bioklimatikoaren sustapenari.

- 2013** Laneko prebentzioari lotuta, ekimen publiko onenaren saria lortu genuen, Arkitektura Teknikoa eta Eraikuntzako Segurtasunerako Europako XVI. Sarietan.
- 2013** Etxebizitza lortzeko merkaturatzeko modu berriak diseinatu eta abian jarri genituen: errenta erosteko aukerarekin eta ordainketa geroratuko erosketak.
- 2013** Endesa saria 2013ko higiezinaren sustapen jasangarrienari, Bermeoko 50 BOE bioklimatikoen proiektuagatik.
- 2013** Europako Batzordeak OSIRYS proiektua hautatu zuen, etxebizitzaren barruko airearen kalitatea hobetzea ahalbidetzen duten eko-materialak garatzeko, I+G+b 7. Programa Markoaren barruan.
- 2014** Etxebizitza Sailburuordetzaren laguntzaz EuskoRegite plataforma abian jarri zen.
- 2014** "Etxebizitza babestuan jardun onenei" AVS saria eman zioten Salburuan (Vitoria-Gasteiz) salmentan 242 babes ofizialeko etxebizitza publikoen (BOE) proiektuari. Proiektu hau aintzatetsi zen eraikuntza jasangarriaren alderdi guztietan etekina altua izateagatik, eraikinean kontsumoak ia zero (NZEB) baitziren eta kalifikazio energetikoa A baitzen.
- 2014** Mutualia Sariaren VI edizioan akzesita lortu genuen, Visesak laneko segurtasun eta osasunaren arloan egiten duen kudeaketa eta prebentzio lanagatik.
- 2014** Nazio Batuen Jardunbide Onen Nazioarteko X. Lehiaketa (Dubai, 2014) parte hartu genuen. "Bilbo-Boluetan: Pertsonentzako Hirigintza. Hiriaren berroneratzea eta inguru naturala berreskuratzea" jardunbidea aurkeztu zen, eta "best" kalifikazioa lortu zuen. Gainera, finalisten "short list" zerrendan sartu zen.
- 2015** Orubide: Orubide publiko bihurtu zen, aholkularitza-jardueraren salerosketa kontratua sinatu zen, eta Orubideko langileak Visesan eta Alokabiden subrogatu genituen.
- 2015** Europako Batzordeak SmartEnCity (Koroatze auzoa) birgaitze proiektua onartu zuen. Proiektua hiriguneetan bizi-kalitatea iraunkorki hobetzeko energia-efizientzia, garraio eta IKT alorretan konponbide orekatu eta integratuak identifikatzeko, garatzeko eta gauzatzeko "Smart Cities and Communities SCC1-205 (H2020)" deialdian aurkeztu genuen. Vitoria-Gasteizko Koroatze auzoan erakustaldia egin genuen.
- 2015** Visisaren Gardentasun Ataria lehenengoz argitaratu genuen.
- 2016** Boluetako (Bilbo) 1 eta 2 dorreen fatxadak aukeratzeko parte-hartze prozesu irekia gauzatu genuen.
- 2016** San Inazioko zubiaren lizitazioa egin genuen (Visesak sustatutako lehenengo zubia).
- 2016** ZTBP EUSKADI 2020. 5 ildo eta arlo estrategikoetan parte hartu genuen. Eta 2. ildo ("Zaharberritze integrala eta hiriaren berroneratzea") bultzatu genuen.
- 2016** Etxebizitza eta Lurzoruaren Sustatzaile Publikoen Espainiako Elkarteak (ELE) akzesit bat eman zigun Obra Berriaren Eraikuntza Onenaren kategorian, Salburuako auzo gas-teiztarrean Visesak 171 gizarte-etxebizitza sustatzeagatik.
- 2017** SmartEnCity-Koroatze auzoa proiektua aukeratu zuten Euskadi 2020 "Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) Planaren 2017ko 10 proiektu enblematikoetako bat.
- 2017** NZEB berriak eraikitze eta diseinatzeko kostua eta bizi-zikloaren kostu osoa murrizteko metodologia orokor bat garatzeko "Kontsumo ia nuluko eraikin berrietan kostuak murrizteko" EE-13-2016 deialdian aurkeztutako "AZEB Towards Affordable Zero Energy Buildings" proiektua onartu zuen Europako Batzordeak.
- 2017** EAEn, eskrituratutako 14.500 babes publikoko etxebizitzaren kopurua gainditu genuen.
- 2018** PassivHaus ziurtapenarekin, munduko etxebizitza babesturik altuenaren sustapena eman genuen Boluetan, Bilbon (108 babes ofizialeko etxebizitza (BOE) salmentan + 63 etxebizitza alokairuan (ES).
- 2018** Hondarribian (Gipuzkoa) salmentan 32 babes publikoko etxebizitzaren (BOE) eta alokairuan 33 babes publikoko etxebizitza sozialen (ES) sustapena entregatu genuen. Bizitegi-eraikinak zuzeko egitura du, eta altuena da Europako hegoaldean.
- 2018** Visisaren Europako Ingurumen Erregistroaren ziurtagiria jaso genuen (ISO 14001 baino eskakizun handiagoa du).
- 2019** Visesak Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programari atxikitako erakundearen diploma jaso zuen.

- 2019** Visesaren webgune berria abian jarri genuen (www.visesa.euskadi.eus).
- 2019** Bizkaiko Bezeroen Arretarako Bulegoa Ametzolako (Bilbo) Trenbidearen hiribideko 38. zenbakiko beheko solairuko instalazio berrietara lekualdatu genuen.
- 2019** Lurzoruak Eskuratzeko Agiria argitaratu genuen.
- 2020** San Ignazion (Bilbo) gure lehen zubia amaitu genuen.
- 2020** Salmentako etxebizitzaren azken sustapenak kalifikatu genituen.
- 2020** Europako Batzordeko Berrikuntza Radarrak SmartEnCity proiektuko gure ekintzetako bi hautatu zituen berrikuntza bikain gisa: eraikinen zaharberritzea bultzatzeko zerbitzu berritzailea eta herritarren partaidetzarako tresna-sorta.
- 2020** Gobernu-sistema Korporatiboa eta Delituen Prebentziorako Protokoloa onartu genituen.
- 2020** Gure zerbitzuak eta jarduera etenik gabe eman ditugu pandemia garaian.
- 2020** Gure bulego guztietan Eusko Jaurlaritzaren energia berriztagarrien % 100 kontratura atxiki ginen.
- 2020** Babes publikoko 190 etxebizitza (BOE) eman genituen Boluetan, eta, lehen dorreko 108 BOE eta 63 ES etxebizitzekin batera, bultzada bat eman diogu eremuari.
- 2021** Etxebizitza eta Lurzoruaren Sustatzaile Publikoen Espainiako Elkarteak (ELE) gure 3 proiektu saritu zituen: "SmartEncity Vitoria-Gasteiz. Koroatze auzoa", "Babes Publikoko Etxebizitzetan Auzokideen Erkidegoetarako Energia Zerbitzuak Ematea" eta "65 BOE Muliaten, Hondarribia".
- 2021** Visesak Quality Innovation Day QIA Euskadi saria irabazi zuen Sektore Publikoaren kategorian "SmartEnCity-Koroatze auzoa" proiektuarengatik. Aintzatetsi da "sustatzaile delegatu" gisa administrazioaren zeregin berritzailea eta azken produktua "bizitzaren jartzeko prest" onuradunei ematea.

Euskadi ordezkatu genuen nazioarteko fasean.

- 2021** Osalanek Jardunbide Onen Aitorpena eman zigun Visesan telelanaren modalitatean.
- 2021** Babes publikoko 16.019 etxebizitza amaitu genituen EAEn.
- 2022** Zorrotzaurreko (Bilbo) DB-3 partzela besterendu genuen etxebizitza libreko sustapen baterako.
- 2022** Lehiarako Elkarrizketa martxan jarri genuen, prozesu eta sistema industrializatuak ikertzeko, proiektua idazteko, eta Sopelan (ASU) babes ofizialeko 33 etxebizitzaren (33 BOEa) zuzendaritza fakultatiboa bideratzeko eta horiek alokatzeko obrak gauzatzeko.
- 2022** QIA Quality Innovation Award. Prize aintzatespena nazioarteko fasean
- 2022** Advanced Architecture Awards – Rebuild. Finalista eraikin baten jasangarritasuna, deskarbonizazioa edo energiaren autogenerazio handiena aitortzen dituen Aldes sarian, alokairuko etxebizitza sozialen parke berriko elektrifikazio berriztagarriaren proiektuarengatik.
- 2022** Visesak, beste 88 erakunderekin batera, Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala 2022-2036 sinatu du. Erabaki hori Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak sustatuta du, Euskadik etxebizitzaren arloan dauzkan erronkei aurre egiteko.

JARDUTEKO ARRAZOIA

Egitekoa: Alokairu erregimeneko babes publikoko etxebizitza sustapenak eta birgaitze eta berritze ekintzak egiten ditugu, Etxebizitzen Gida Plana 2021-2023an adierazitako beharrak asetzeko, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailarekin eta beste eragile publiko eta pribatu batzuekin koordinatuta, eta bizigarritasun eta jasangarritasun irizpideen arabera jokatuta.

GURE HELBURUA

Ikuspegia: EAEko funtsezko eragile izan nahi dugu etxebizitza politika publikoa aurrera eramateko, obra berriaren sustapenaren, birgaitzearen eta hiri-berrikuntzaren bidez. Horrez gain, Etxebizitzen Gida Plana 2021-2023 eta Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala 2022-2036 garatzen lagundu nahi da, zerbitzu publikoa ematen dien kolektibo ezberdinen etxebizitza-beharrei egokitutako produktu eta zerbitzu-zorria izanda, eta bizigarritasun eta jasangarritasun irizpideetan oinarrituta.

JARDUTEKO MODUA

Pertsonak

- Pertsonak erreferente estrategiko gisa.
- Alokairuen kultura eta euskal gizartearen bizimodu berriak.
- Dibertsitatea eta tolerantzia.
- Gizarte kohesioa.
- Pobrezia energetikoaren aurkako borroka.
- Finantzazio nahikoa.
- Fiskalitate progresiboa.
- Ingurumen-kontzientziakzioa

Parke eraikia

- Berritze integralaren kultura.
- Kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna (energia-efizientzia, ekonomia zirkularra eta karbono-aztarna).
- Eskuragarritasun unibertsala eta bizigarritasuna (barnekoa eta kanpoko).
- Industrializazioa eta digitalizazio sektoriala.
- Enpleguaren kalitatea eta kualifikazio profesionala.

Gobernantza

- Etxebizitzako inbertsioa herrialdeko egitura estrategiko gisa.
- Zerbitzu publikoa eta lidergoa.
- Sinplifikazioa eta arintasun administratiboa.
- Gardentasuna, partaidetza eta etengabeko bilakaera.
- Lankidetzaren publiko-pribatua.
- Genero-ikuspegia



GURE JARRERA IKUSGARRIAK

Hona hemen Visesako pertsonengan espero ditugun jarrerak:

Pertsonak erreferente gisa.


Enpatia.

Elkarlana.

Inplikazioa.

Zorroztasuna.

Egokitzeko gaitasuna.



URE LEHENTASUNAK (ESTRATEGIA)

ETXEBIZITZAREN LEGEA

Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legeak Visesaren jarduera gidatu du, eta foku bakar modura alokairuan emandako etxebizitza publikoa sustatzera bideratu da.

ETXEBIZITZAREN ALDEKO ITUN SOZIALA 2022-2036

2022an Visesak Etxebizitzaren aldeko Gizarte Ituna sinatu zuen. Ekimen hori Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak sustatu du eta honako hau da bere helburu nagusia: etxebizitzarako eskubidea eskubide eraginkor bihurtzeko prozesua arintzea, etxebizitza duina eta eskuragarria izatea giza garapen jasangarriaren funtsezko elementuetako bat dela ulertuta, Euskadik erabateko konpromisoa du garapen horrekin.

Horretarako, ezinbestekoa da etxebizitza-politika adostua, koherentea eta epe luzerakoa izatea, gure gizarte-ereduaren euskarri gisa ikusiko dena. Halaber, funtsezkoa da etxebizitzaren esparruan herritarrekin jarduten duten eragileek modu lerrokatuan, partekatuan eta elkarlanean lan egitea, epe ertain eta luzerako ikuspegiarekin. Guztira 88 erakundek sinatu zuten ituna.

Horretarako, 4 helburu kualitatibo ezarri ziren 2036ra arte:

- H1** Arrazoizko prezioko alokairuaren eskaintza publikoa Euskadin dauden etxebizitza nagusien % 5ekoa izatea 2036. urtearen amaieran
- H2** 2036an babes publiko iraunkorreko etxebizitzak Euskadin dauden etxebizitza nagusien % 12 izatea, 2021eko % 7,7arekin alderatuta
- H3** Eraikin guztien % 1,5eko urteko birgaikuntza-indizetik % 3ra pasatzea, Europako zuzentarauek eta politikek 2030erako eta 2050erako ezarritako helburuak betetzeko.
- H4** Talde kaudimenduei etxebizitza libreen eskaintza ahalbidetzea, bai obra berria bai etxebizitza berriak, birgaitze-prozesuak egin ondoren, sustatuz.

Helburu horiek lehentasunezko 6 jarduketa-ildoren barruan daude:


- I1** Etxebizitzan gehiago inbertitzea pizgarrietan oinarritutako fiskalitatearen bidez.
- I2** Etxebizitza-politikaren dimentsio sozialean sakontzen jarraitzea.
- I3** Etxebizitza udalaren agenda estrategikoan txertatzea orokortzea.
- I4** Eraikuntzaren sektore erakargarri, lehiakor eta berritzailea osatzea.
- I5** Datuen intelijentzia eta ebaluazio aurreratua.
- I6** Inplikazio eta lankidetzak publikoak, pribatuak eta sozialek.

ETXEBIZITZAREN GIDA PLANA 2021-2023

Etxebizitzaren Gida Plana 2021-2023 2022ko abenduan onetsi zen, eta honako xede hau du: etxebizitza duin eta egoki baten beharra duten pertsonen erantzun integrala ematea, eta, horretarako, alokairu eskuragarriko eta etxebizitza-parkearen bizigarritasun- eta jasangarritasun-baldintzak hobetzeko baliabide-eskaintza areagotzea.

Honako nortasun-ezaugarri hauek ditu:

- Ekimen publiko eta pribatuko alokairu babestua sustatzearen aldeko apustua indartzea, alokairu babestuko erregimenean eraikitzea sustatzeko, etxebizitza eskuratzeko eta alokairu eskuragarriko formula alternatibo berriak txertatuz. Datozen 15 urteetan etxebizitza babestuen parkea bikoiztea da helburua.
- Jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzeko programak indartzea (Bizigune eta ASAP) alokairu eskuragarriantz bideratzeko, familia gehiago bizi ahal izan daitezen alokairu libreko etxebizitza batean, beren errentaren arabera merkatuko prezioen azpitik dauden zenbatekoak ordainduz, diru-sarreraren arabera.
- Etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzeko bidean aurrera egitea, eta, ildo horretan, geure gain hartzea Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren kudeaketa. Horrek esan nahi du, gainerako prestazioekin batera, hamarnaka mila pertsonak eta familiak izango dutela laguntza bat alokairua ordaindu ahal izateko.
- Jauzi kuantitatibo eta kualitatibo bat lortzea birgaitze-politikan. Horretarako, birgaitze integrala, irisgarritasuna eta energia-efizientzia biziki sustatzea, aurrekontua eta helburuak bikoiztea aurreko planarekin alderatuta, eta eskabideen kudeaketa arindu eta erraztea. Era berean, eskabideen kudeaketa arintzea eta erraztea. BHSen aldeko apustua egitea, dinamizatzaile gisa.
- Alokairu-eskaintza handituko duen, prezioen kontrola erraztuko duen eta birgaitze-kenkariak optimizatuko dituen fiskalitatearen aldeko apustua egitea.



Horretarako, 3 ardatz ditu:

ARDATZA 1

Alokairu eskuragarria sustatzea Euskadin

Estrategia:

- 1.1 Babes publikoko etxebizitza-parkea areagotzea.
- 1.2 Etxebizitza eskuragarria bermatzera bideraturiko baliabideen eta prestazioen sistema garatzea.
- 1.3 Jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzea.

ARDATZA 2

Bizitegi-eraikinen parkearen gaineko jarduketak

Estrategia:

- 2.1 Eraikinen eta etxebizitzaren parkea birgaitzea.
- 2.2 Kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea eraikuntzan eta birgaitzeetan.
- 2.3 Eraikuntza-sektorea eta enpleguaren kalitatea indartzea.
- 2.4 Birgaitzeko hirigintza-sozietateekin, udalekin eta etxebizitza sozietate publikoekin koordinaturik jardutea, herritarrei arreta hobea emateko eta birgaitze-agentearen figura sustatzeko.

ARDATZA 3

Gobernantza sistemak eta koordinazio instituzionala

Estrategia:

- 3.1 Gobernantza-eta jarraipen-sistema.
- 3.2 Babes publikoko egoitza-sistema garatzeko zerga- eta finantzaketa-politika.
- 3.3 Etxebizitza-politiketako koordinazio-sistemak.

Etxebizitzaren Gida Planaren esparruan, hauxe da Visesaren mandatua:

1. ARDATZA: Euskadin arrazoizko alokairua sustatzea

Visesan helburu hori lortzeko lanean ari gara, eta, horretarako, alokairuko babes publikoko etxebizitzaren parkea areagotzen ari gara lurzorua lortzeari eta sustapen berria sustatzeari esker.

2. ARDATZA. bizitegi eraikinen parkeen gainean jardutea

Helburu hori lortzeko, Visesan, alde batetik, eraikuntzaren kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea bilatzen dugu, eta, horretarako, industrializazioa eta jasangarritasuna erabiltzen ditugu arrakasta lortzeko tresna gisa.

Bestalde, erakunde erraztaile eta prozesuen aktibatzaile modura jarduten dugu, birgaitze programak egiteko, finantziario aukerak Europako funtsen bidez optimizatzeko (Next Funtsak) eta horiek modu integralen bidez ezarri ahal izateko.

Ildo horretan, Visesak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailarekin egiten du lan eta Birgaitze Bulegoko lanak egiten ditu Berreskurapen, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (Europar Batasunak – NextGenerationEU finantzatuta) etxebizitzaren birgaitze- eta gizarte laguntzako etxebizitzaren arloko 3, 4 eta 5 programei dagokionez. Horrez gain, finantza neurrien 1 eta 2 ildoetan egiten du lan birgaitze eta eraginkortasun energetikoaren esparruan, eta Etxebizitza Sailburuordetzaren etxebizitza eta eraikinak birgaitzeko, irisgarritasuneko eta eraginkortasun energetikoko jarduketa babesgarrietan.

Horrez gain, erakunde laguntzaile modura egiten dugu lan, eta organo instruktorearen lanak egiten ditugu espedienteak kudeatzeko. Bestalde, herritarrentzako leihatila bakarra gara espedienteak jasotzeko, administrazioko izapideak egiteko, egiaztapenerako, ebazpen proposamenak egiteko eta laguntzen ordainketa kudeatzeko.


Halaber, Next Funtsen 6. programaren esparruan alokairuko sustapen babestuak egingo ditugu, zehazki, 1.140 etxebizitza.

VISESAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Indarreko Plan Estrategikoa 2024ra arte mantenduko da, eta Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialetik eta Etxebizitzaren Gida Plana 2021-2023tik eratorritako Visesaren lan ildoak markatzen ditu. Plan Estrategikoa azken horrekin lerrokatuta sortu da. Estrategia definitzeko prozesuaren lehenengo fasean, gure jarduketa- lehentasunak aurreikusten dituen esparru estrategia definitzen dugu, eta gure strategiak Garapen Jasangarrirako Helburuetan (GJH) zer ekarpen egiten duten aztertuko dugu. Bigarren fasean, marko operatiboa definitu genuen, eta, horretarako, urteko Kudeaketa Plana sortu genuen plana indarraldian dagoen aldi osorako. Horrez gain, 2022-2023 aldirako definitutako helburuen jarraipena egitea ahalbidetzen digun aginte taula ezarri genuen.

Plan Estrategikoa eta Kudeaketa Plana 2022ko abenduaren 21ean egindako Administrazio Kontseiluan onetsi ziren.

Behin onetsita, strategiaren hedapena 3 ardatz estrategiko, 5 estrategia eta 12 ildorekin bat egin da. Ondoren xedatzen dira horiek guztiak:



Ardatzak	Estrategiak	Ildoak
<p>1. Arrazoizko alokairua sustatzea</p>	<p>1.1. Alokairuko babes publikoko etxebizitza sustatzea, etxebizitza legearekin bat, 2021-2023 EGPan adierazitakoarekin bat, parke publikoa areagotzeko.</p>	<p>1.1.1. Lurzorua edo lurgaina eskuratzeko lanak egitea, alokairuko etxebizitza babestuen sustapen-beharrei erantzuteko.</p> <p>1.1.2. Alokairuko babes publikoko etxebizitza sustatzea, 2021-2023 EGPan xedatutakoa aintzat hartuta, kolektiboari eta lurraldeari egokituta.</p> <p>1.1.3. Alokairuko babes publikoko etxebizitza Alokabideren eta maizter/eskatzaileek beharretara egokitzea.</p>
<p>2. Bizitegirako eraikin-parkearen gaineko ekintzak eta hiria birgaitzeko esparruak</p>	<p>2.1. Eraikuntzan eta birgaitzean kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea, eraikuntzaren sektorea eta enpleguaren kalitatea indartuz.</p>	<p>2.1.1. Arkitektura-zerbitzuen lizitazio eta kontratazio-baldintzak hobetzen jarraitzea etxebizitza publikoaren sustapenerako.</p> <p>2.1.2. Bizigarritasun Dekretuarekin bat etxebizitzak diseinatzeko irizpideak aplikatzen jarraitzea: eraginkortasun energetikoa, Visesaren esku-hartzeetan ingurumen inpaktua murriztea, eta irisgarritasuna, ekonomia zirkularra, jasangarritasuna, bizigarritasuna eta ikuspuntu berriak sustatzea.</p> <p>2.1.3. Eraikuntzan eta birgaitzean eraikuntza-prozesuen industrializazioa sustatzea.</p>
	<p>2.2. Etxebizitza-parkeak birgaitzea beste eragile batzuekin koordinatuta.</p>	<p>2.2.1. Sailari laguntzea etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko laguntzen kudeaketan, birgaitze-bulego eta erakunde laguntzaile modura. (I1 eta I2 Sailaren Laguntzak eta Next Generation Funtsen Laguntzak).</p>
	<p>2.3. Hiriko berrikuntzako proiektu estrategikoekin jarraitzea.</p>	<p>2.3.1. Hiriko berrikuntzako proiektu estrategikoetan parte hartzea beste eragile instituzionalekin batera.</p>
<p>3. Gobernantza-sistemak eta koordinazioa</p>	<p>3.1. Gobernantza-sistemetan eta erakunde zein barne koordinazioko sistemetan parte hartzea eta garatzea.</p>	<p>3.1.1. Etxebizitza Sailarekin eta Alokabiderekiko modu estuan lan egitea.</p> <p>3.1.2. Visesa sozietate publiko eraginkor, berritzaile, lehiakor eta jasangarri bihurtzea finantza-arloan, eta araudia betetzen dela bermatzea.</p> <p>3.1.3. Visesak gizartean egiten duen lana balioan jartzea.</p> <p>3.1.4. Gaikuntza duten eta Visesarekin konpromisoa duten pertsonekin lan egitea.</p>

2021-2024ko Esparru Estrategikoak GJHen zerrrenda hau ezartzen du eta gure jarduerak horien gainean inpaktua dauka.

Ildo eta Ekintza Estrategikoak	1 POBREZIAREN AMAIERA	2 GOSERIK EZ	3 OSASUNA ETA ONGIZATEA	4 KALITATEZKO HEZKUNTZA	5 GENERO BERTINTASUNA	6 UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	7 ENERGIA ESKURAGARRI ETA EZ KUTSATZAILEA	8 LANDUNA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA	10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	12 EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	14 ITSASPEKO BIZITZA	15 LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA	16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	17 HELBURUAK LORTZEKO ITUNAK
Lurzoria edo lurgaina eskuratzeko lanak egitea, alokairuko etxebizitza babestuen sustapen beharrei erantzuteko.																	
Alokairuko babes publikoko etxebizitza sustatzea, 2021-2023 EGPan xedatutakoa aintzat hartuta, kolektiboari eta lurraldeari egokituta.																	
Alokairuko babes publikoko etxebizitza Alokabideren eta maizter/eskatzailerek beharretara egokitzea.																	
Arkitektura zerbitzuen lizitazio eta kontratazio baldintzak hobetzen jarraitzea etxebizitza publikoaren sustapenerako.																	
Bizigarritasun Dekretuekin bat etxebizitzak diseinatzeko irizpideak aplikatzen jarraitzea: eraginkortasun energetikoa, Visisaren esku hartzeetan ingurumen inpaktua murriztea, eta irisgarritasuna, ekonomia zirkularra, jasangarritasuna, bizigarritasuna eta ikuspuntu berriak sustatzea.																	
Eraikuntzan eta birgaitzean eraikuntza prozesuen industrializazioa sustatzea.																	
Sailari laguntzea etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko laguntzen kudeaketan, birgaitze bulego eta erakunde laguntzaile modura. (I1 eta I2 Sailaren Laguntzak eta Next Generation Funtsen Laguntzak).																	
Hiriko berrikuntzako proiektu estrategikoetan parte hartzea beste eragile instituzionalekin batera.																	
Etxebizitza Sailarekin eta Alokabiderekkin modu estuan lan egitea.																	
Visesa sozietate publiko eraginkor, berritzaile, lehiakor eta jasangarri bihurtzea finantza arloan, eta araudia betetzen dela bermatzea.																	
Visesak gizartean egiten duen lana balioan jartzea.																	
Gaikuntza duten eta Visesarekin konpromisoa duten pertsonekin lan egitea.																	

GJHen kontribuzioa:

BAXUA ERTAINA ALTUA



PLAN ESTRATEGIKOAREN ETA KUDEAKETA PLANAREN BETETZE-MAILA

Hona hemen Plan Estrategikoaren eta Kudeaketa Planaren azken urteetako betetze-mailaren emaitzak:

Plan Estrategikoa	2021	2022	2023	2024	Legislatura
1. ardatza		%81			
2. ardatza	%82	%75			
3. ardatza		%112			
Guztira		%89.33			

Kudeaketa-plana	2021	2022	2023	2024
Betetzearen %	%82	%87		

A photograph of three young women in a workshop or classroom setting. The woman in the center is smiling and looking towards the right. She is holding a small, light blue rectangular object. The woman on the left is wearing glasses and is also smiling. The woman on the right is looking down at the object. They are all wearing casual clothing. The background is a wooden wall.

GURE INTERES- TALDEEK MUGITZEN GAIUZTE

Gure gizarte-konpromisoa Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren ikuspegi globalean oinarrituta gauzatzen da, eta, beraz, arlo horretan aurrera egiten jarraitzeko eta, bereziki, kudeaketaren gardentasunean aurrera egiteko lan egiten dugu.

NORENTZAT

Honako hauek dira gure interes-taldeak:

Lehentasunezkoak	<ul style="list-style-type: none">Sustapeneko bezeroak.Eusko Jaurlaritza.Akziodunak eta Administrazio Kontseilua.Lurzoruaren enpresa hornitzaileak.Pertsonak.Obra, zerbitzu eta horniduren enpresa hornitzaileak.	Gainerakoak	<ul style="list-style-type: none">Gizartea orotara.Erakunde publikoak.Birgaitzearen eta Herri Berrikuntzaren bezeroak.Elkargo profesionalak, talde profesionalak, eraikuntzako sektoreko elkarteak.Erakunde aliatuak.Beste eragile sustatzaile batzuk.Komunikabideak.
-------------------------	--	--------------------	---

INTERES-TALDEEKIKO DITUGUN KONPROMISOAK

GARDENTASUN-ATARIA

Zerbitzuaren ikuspegi bikoitzarekin jaio zen: balio publikoa sortzea eta baliabide publikoak erabiltzean gardentasunaren kultura-eredu hartzea.

Gure jarduerari eta gobernu onari buruzko informazio garrantzitsua aldian-aldian eta eguneratuta argitaratzeak (publizitate aktiboa) eta herritarren informazio eskaerak betetzeko prest egoteak (informazio publikoa eskuratzeko eskubideei buruzko eskabideak) zabaldu eta indartu egingo duela herritarrek Visasarengan duten konfiantza.

Ildo horretan, Q-epearekin (Kudeaketa Aurreratuaren aldeko Euskal Erakunde Publikoak) lankidetzan dihardugu, publikitate aktiboa ebaluatzeko ereduak definitzen, mantentzen eta hobetzen. Visesak emaitza bikainak lortu dituen ebaluazioa.

Aurten, Visasan asko egin dugu aurrera informazio guztia euskaraz argitaratzean, eta gure atariko edukiak eguneratuta mantendu ditugu.

JASANGARRITASUN MEMORIA EDO GRI MEMORIA

Izaera publikoa duen eta borondatezkoa den txosten bat da, gure posizioa eta jarduerak jasotzen dituen gizarte, ingurumen eta ekonomia ikuspegitik, eta bertan intereseko taldeei (akziodunak, bezeroak, langileak, aliantzak eta gizarte oro har) zuzendutako proiektu, onura eta ekintza sozialen berri ematen diegu. Bi urtean behin argitaratzen da, eta finantza informazioa zein kudeaketa txostena osatzen ditu.

Global Reporting Initiativek (GRI) sustatzen duen eredu nazioartean ezagunena den estandarra da, eta erreferentzia gisa erabili dugu txostena egiteko.

Gure ardura sozialaren komunikazio oinarria da, eta bereizten gaituen gardentasun printzipioaren adibide da.

2021ean 4. jasangarritasun memoria argitaratu genuen, eta Visasaren gardentasun atarian aurki daiteke.

2022an memoriaren edukia zein edukitzailea berrikusteko lanetan ari gara, 2023ko argitalpena GRI estandarretara egokitzeko; izan ere, publiko orokorrari ekonomia, ingurumen eta gizarte inpaktuen berri emateko diseinatutako nazioarteko praktikak direla uste baita.

Estandar horietatik abiatuta jasangarritasun txostenak aurkeztuari esker, erakundeek gure jasangarriaren alde egindako lanaren berri ematen zaie intereseko taldeei.

ARRISKUEN KUDEAKETA, GOBERNU ARDURATSUKO GIDA ETA BARNE-KONTROLEKO ESKULIBURUA

2009 urteaz geroztik, Eusko Jurlaritzaren "Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde, sozietate eta fundazioen gobernu arduratsurako gida" izenekoan lan egiten dugu, Kontrol Ekonomikorako Bulegoak gidatua. Gida horretan, erakundearen kudeaketa ekonomikoa, ingurumenari dagokiona eta kudeaketa soziala eraginkortasunez gauzatzeko hainbat alderdi lantzen dira, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako (ELGA) Antolakundeak zehazten dituen gardentasun eta gobernu egokirako printzipioak beteta.

Aldi berean, "Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Erakunde, Sozietate eta Fundazioen Barne Kontroleko Funtzioa ezartzeko eta garatzeko esku liburua" jarri dugu martxan, arriskuen kudeaketa eta barneko kontrolerako sistema ezartzearen bidez.

Visesan gidekin dugun konpromisoari eutsi diogu, eta hiru hilean behin Eusko Jurlaritzaren Kontrol Ekonomikorako Bulegoari ezarpen-mailaren berri ematen jarraitu diogu.

Azken urteotan, bi urtean behin egindako autoebaluazioen ondoriozko ekintza-planak osatu ditugu, beharrezko hobekuntza-proiektu eta ekintzak identifikatuta, gidak % 100ean betetzera hurbilduta. Hala, adibidez, Gobernu-sistema Korporatiboa onartu eta 2020an barne-jardunbideko Kode bat osatu da; beraz, Gobernatze-arduratsuen Gidan jasotako neurrietan asko aurrera egitea ahalbidetu da.



Visesaren arriskuen kudeaketa

Arriskuen kudeaketa eta barne kontroleko sistematikarekin bat, Visesan arrisku eta aukeren mapa lehenetsia dugu prozesu, estrategia, compliance, informazioaren segurtasuna, datuen babesa eta ingurumen esparruetan.

Lehenesteko aintzat hartutako irizpideak dira gertatzeko aukera, horren gaineko kontrola, prozesuan izandako eraginik handiena eta interes-taldeetan izandako inpaktua.

Lehenetsi ostean, arriskuen mapa bat dugu erakundearen prozesuekin lotuta, arrisku bakoitzari buruzko fitxa baten definizioaren bidez landu dena. Arriskuen fitxa horren barruan, arriskuak murrizteko beharrezkoa urte anitzeko ekintza-planak ezartzen dira (ekintzak urteko kudeaketa-planen bidez egiten dira).

2022an, 2021-2024 aldiko Arriskuen Mapa identifikatu dugu. Mapa hori diagnostiko fasean zehar identifikatutako arriskuen kualifikazioaren bidez zehaztu da. Arrisku horiek honako hauekin lotuta daude: AMIAn jasotako mehatxuen eta ahulezien analisia; interes-taldeekin lotutako arriskuak; eta aurreko ziklo estrategikoan identifikatu ziren eta gaur egun oraindik existitzen diren arriskuak Horretarako, Arrisku Estrategikoen Mapara helarazi dira onartezin gisa baloratutako arriskuak.

Arriskuen Mapa identifikatu ostean, prozedura bat aplikatzen da arriskuen kudeaketarako. Prozedura hori Visesaren Kudeaketarako Sistema Integratuan jasota dago; horrela, fitxa bat sortzen da jarraitzen diren ekintzei eta kontrolei buruz. Prozedura horrek ISO 9001:2015 Arauan, EMAS araudian eta Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren barne-kontrola ezartzeko eta garatzeko eskuliburuan adierazitako betekizunei erantzuten die.



EMAS EUROPAKO ARAUDIA ETA UNE-EN ISO 9001 ETA 14001 ARAUAK

Kudeaketa Sistema Integratua dugu, eta urtero ikuskatzen da. UNE-EN ISO 9001:2015 Arauaren arabera ziurtatuta dago, eta EMAS 1221/2009 Europako Erregelamenduari (1505/2017 (EB) eta 2026/2018 (EB) Erregelamenduek aldatu dute) egokitu zaiou.

Sistema honi esker, kalitate- eta ingurumen-eskakizunak betetzen direla ziurtatzen da. Gainera, prozedurak eta jarraibideak sistematizatzen dira, eta ingurumena babeste aldera, bai eta gure jarduerari lotutako eraginak murrizte aldera ere, etengabeko hobekuntza-konpromisoarekin aurrera egiten da.

EMAS Erregistroa duen erakundea garenez, gure ingurumen-jokabidea neur, ebalua, jakinarazi eta hobe dezakegu. Urtero betetzen dugu ziklo hori EMAS Ingurumen Adierazpenaren bidez, eta interes taldeen eskura jartzen dugu berori gardentasun atariaren bidez.

2022an zehar EMA erregistroaren jarraipenerako bigarren kanpo auditoria izan dugu. Horrez gain, UNE-EN ISO 9001 Arauaren arabera kalitatearen kudeaketa sistemaren jarraipenerako lehenengo kanpo auditoria ere izan dugu. Kanpo auditoriak egiteaz arduratu den enpresa Bureau Veritas izan da. Ez batan ez bestean ez da ez adostasunik egon.

Kanpo-auditoretzan indargune gisa adierazi dira ingurumen-alderdien identifikazioan eta ebaluazioan dagoen garapen-maila, proiektuetako ingurumen-kontsiderazioak (ekodiseinua, energia-efizientzia, etab.) eta kontratatutako enpresa eraikitzaile guztiek ISO 14001 egiaztagiria izatea.

EMAS INGURUMEN-ADIERAZPENEA

Ingurumen-adierazpenaren xedea da publikoari eta interesatutako beste aldeei Visesaren ingurumen-inpaktuari eta -jarrerari buruzko ingurumen-informazioa ematea, eta etengabe hobetzea arlo horretan dugun jarduna.

Informazioa egiazkoa eta gardena izan behar da eta modu argian eta koherentean azaldu. Horrez gain, interesatutako aldean itxaropenetara eta beharretara egokituta egon behar da. Beste baliabiderik ez duten pertsonak informazioa lortu ahal dutela ziurtatzeko, idatziz aurkezten da.

2022ko irailean, 2021eko EMAS ingurumen-adierazpena balioztatu dugu (Bureau Veritas enpresa balioztatzailearen zuzendaritza teknikoak eta lhobek berrikusi dute).

DATUAK BABESTEKO EUROPAKO ARAUDIA

2022an datu pertsonalen babesa berrikusi dugu lanerako aplikazioetan (webgunea, intraneta...), prozedurak, klausulak, kontratuak eta beste tresna batzuk behar bezala ezarri direla egiaztatzeke, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikora egokitzen direla egiaztatzeke. Hori horrela, lortutako emaitza ona izan da. Halaber, gure galdetegietan gehitutako klausulak eta artikulak berrikusi ditugu, lege berrien argitalpenean oinarrituta. Eguneraketa horiek isla dute gure webguneko zenbait ataletan, baina, gehien bat, Gardentasun Atarian eskuragarri dagoen TJEn.

2022. urtean zehar datuak babesteko taldeak Visesak barne-eremu guztietako 33 kontsulta erantzun ditu, gure interes-taldeen datu pertsonalak babesten zirela bermatzeko. Halaber, beharrezko tresnak txertatu ditugu bezeroen datuak babesteko proiektu berrietan, hala nola Next funtsen laguntzetarako kudeaketa.

KAPITALAK ZURITZEAREN PREBENTZIOA

Kapital Zuriketen Prebentzioari eta Terrorismoaren Finantzaketari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legean xedatzen dena betetzeko, gure jardueraren arabera, hainbat neurri eta prozedura ezarri ditugu. Administrazio Kontseiluak 2006AN sortu zuen Barneko Kontrol eta Komunikaziorako Organoa (BKKO), horren araudian jasotako funtzioak betetzeko.

Urtean behin, gure Barne Kontrol Organoak (BKO) kapitalak zurrizteko arriskuaren eta terrorismoaren finantzaketaren autoebaluazio-txostena berrikusten du, bezeroen tipologia edo erakundearen operatiboan sor daitezkeen aldaketa posibleak hautemateko. Txosten berri bat idazten da eguneratuta, eta aztertutako azken aldian garatutako operatiboarekiko arrisku errealaren balioa doitzen da.

2022an, aldian behin bilerak egiten ditugu Barne Kontrolerako Organoarekin (BKO).

Bestalde, Kapitalen Zuritzearen Prebentziorako prestakuntza langile guztientzako ematen jarraitu dugu.

DELITUAK PREBENITZEA

Administrazio Kontseiluak 2016ko martxoan emandako aginduari erantzuteko, delituen prebentzio-eredu bat, diagnostiko bat eta ekintza-plan bat egin genituen.

Gerora, 2020. urtean, Administrazio Kontseiluak Gobernu Sistema Korporatiboa onetsi zuen. Horren xedea da gobernu-organoen funtzioen gardentasuna eta kontrola handitzea. Lege- eta estatutu-araudia garatzen eta osatzen duten arau eta prozedurek osatzen dute sistema hori, eta Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Arduratsuaren Gidan oinarritzen da. Zehazki, honako hauek osatzen dute: oinarri orokorrak, Kontseiluaren araudia, kontseilarien estatutua, kontseilarien kode etikoa eta eranskinak.

Era berean, urte horretan bertan, Administrazio Kontseiluak Delituak Prebenitzeko Protokoloa onetsi zuen. Protokolo horren xedea da gauzatutako jarduera deskribatzea eta legeaz gaindiko jarduketa baten arriskua prebenitu edo arintzeko ezarritako kontrolak identifikatzea. 2021ean dagoeneko txertatuta eta indarrean zegoen.

2022an, martxan jarri ditugu Salaketen Kanala eta Postontzi Etikoa, Visasaren intranetaren bidez.

HIZKUNTZA-POLITIKA – EUSKARA

Eusko Jaurlaritzan onetsitako VI. Euskara Planarekin lerrokatuta, Visasan euskara-planean (2018-2022) jasotako ekimenak garatzen jarraitzen dugu, erakundean euskara erabiltzea sustatzeko. 2022a euskararen erabilera eta normalizazioa planifikatzeko VI. aldiaren azken urtea izan da.

Iaz Gobernu Kontseiluak EAeko Administrazio Orokorraren eta Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak onetsi ostean, Visasan ere aplikagarriak zena, aurten ere erakunde osoan zabaldu ditugu. Gainera, irizpide horietan oinarritutako zenbait proiektutan lan egin dugu, hala nola gardentasun-atarian, zeinak dagoeneko badauka dokumentazio guztia elebitan, edo kontratazio-zerbitzuak, zeinak aurten lehenengo agiriak elebitan argitaratu dituen.

Halaber, eta Visasan ohikoa izan denez, Eusko Jaurlaritzak euskararen erabileraren alde sustatutako zenbait ekintzatan parte hartu dugu: Euskaraldia edo Euskararen Eguna.

Beste urte batzuetan bezala, 28 pertsona gaitasun orokorrak garatzeko eta gaitasunak lanpostuan aplikatzeko prestatzen jarraitzen dute: 8 pertsonak B1 maila dute; 16k B2a; 31k C1a eta 2k C2. Horietatik, % 67,35ek Visasaren ikerketari esker lortu dute, eta ia plantillaren % 60k du bere lanposturako behar duen euskara maila.

JASANGARRITASUN ENERGETIKOAREN DEKRETUA

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzko irailaren 22ko 254/2020 Dekretuari erantzuteko, Visasan hurrengo urteetarako neurrien plana daukagu, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) gure instalazioetan auditoretza energetikoa egin ondoren. Horren helburua da aurrezki handiagoa eta energia-efizientzia.

Planaren ekintza bat ibilgailuak berritzera bideratzen da. 2022an dagoeneko 2 ibilgailu elektriko ditugu, entxufa daitezkeen eta 0 kalifikazioa duten 10 hibrido (2021ean baino 6 gehiago) eta 1 PGLrekin batera. Gainera, Vitoria-Gasteiz hiriburuaren barruko joan-etorrietarako bi bizikleta elektriko erosi genituen.

Era berean, ibilgailu elektrikoentzako 11 kargadore instalatu ditugu gure bulego nagusietako aparkalekuetan, flota elektrikoari birkargatzeko zerbitzua emateko. Kargadore horiek aurretik instalatukoei gehitzen zaizkie (3 hartune bikoitz zentralerako 6 plazatarako eta 3 hartune bikoitz Bizkaiko 6 plazatarako).

Neurri horien bidez, Visisaren helburua da "in labore" lekualdatzeetan mineral fosilen kontsumoa murriztea. Gainera, Alokabiderekin eta Urarekin batera martxan jarriko den mugikortasun-plan baten babesa jasoko du. Plan horrek ere gure ohiturak aztertuko ditu "in itinere" egiten ditugun bidaietan eta neurriak proposatuko ditu CO₂ kontsumoak eta igorpenak murrizteko.

Beste ekintza bat da gure bulegoetako argiak Led argiekin berritze, kontsumo elektrikoaren aurrezkian laguntzeko. 2021ean dagoeneko berritu genuen instalazioaren % 20 eta aurten % 40 berritu dugu (gainerako % 40a 2023rako aurreikusita dago).

Gainera, kontsumoen esparruan erabakiak hartzeko beharrezkoa da datu zehatzak izatea. Lehenengo urratsak ematen ari gara elektrizitateen kontsumoen kudeaketako sistema bat txertatzeko (inguruen eta instalazio moten arabera kontsumoen datuak: argia, airea, inprimagailuak eta bulegoak...).

Halaber, 2022an inprimagailuak konfiguratu ditugu kontsumoen datuak lortu eta erabakiak hartzeko, eta, horrela, paperaren eta beste kontsumigarri batzuen kontsumoa murrizteko.

DOKUMENTAZIOAREN ARTXIBOA ETA KUDEAKETA

2022an zehar, Visisaren jarduerari dagokionez, 2021ean digitalizazio-plana zabaltzen jarraitu dugu. Testuinguru honetan Visisaren agiritegi digitala abian jarri dugu, eta dokumentuak kudeatzeko Eusko Jaurlaritzaren DOKUSI sisteman txertatu da. Hala, elkar komunikatuta gelditu dira sistema hori eta Visisaren kudeaketa integralerako tresna informatikoa. Modu horretan, digitalizatuta dauden agiriak aplikazio informatikoan espedienteen fitxen barruan txertatzen dira.

Funtzionaltasun hori hasieran pilotu modura ezarri dugu abalei buruzko informaziorako, eta berehala orokorrean zabaltzeari eutsi diogu eskriturak, hitzarmenak, bezeroen arreta-espedienteak eta sustapenei buruzkoak sartzeko.

Plan beraren esparruan, Visesak lizitazioan jarri eta esleitu du dokumentazio-erregistro berria ezartzea, gure webgunearen bitartez erregistro elektronikoa eta telematikoa eramateko.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Dokumentazioaren Baloraziorako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora Jotzeko Batzordeak (COVASAD) Visisako dokumentazioaren sailkapen-taula eta egutegia aurkeztu eta onetsi ditu, eta horren berri eman da BAO-n. Horrez gain, ISAD fitxak egiten eta hobetzen jarraitzen dugu, dagoeneko COVASADek onartu ditu, dokumentazio digitalean kudeaketa hobeto aplikatzeko.

Aurreko urteetan bezalaxe, Visisaren tarteko artxiboko dokumentazioaren urteko transferentzia egin dugu Euskadiko Artxiboaren Gordailura. Hala, gure instalazioetan kontserbazio-epea bete duen dokumentazio guztia bidali dugu, eta liburutegiak mantentzen eta erakunde-artxiboak handitzen jarraitzen dugu, material berrien bidez. Horri esker, Visisaren gizarte-jarduera testuinguruan jartzen da.

TOKIKO ERKIDEGOAN EGINDAKO INBERTSIOAK

Gure proiektuei esker, EAEko eraikuntza eta eraikingintza sektoreko jarduera ekonomikoan inpaktu handia duen eragile bat gara, eta eragile publiko eta pribatuak ekonomiaren ikuspegitik mugitzen laguntzen dugu.

Jarraian, 2022an egindako ordainketen eta gastuen zenbatekoa zehazten da, baita zerga-itzulera ere:

Inbertsioa tokiko erkidegoan	2022
Obra-ziurtapenak	31.775.429,68 €
Lurrak	8.113.102,18 €
Interesak eta finantza-gastuak	299.966,22 €
Sukaldeak	330.253,80 €
Teknikarien ordainsariak	1.757.909,96 €
Laguntza teknikoak (probak eta laginak, kontrol teknikoa eta salmenta on-dokoa)	866.871,32 €
Aseguruak	327.033,52 €
Gremioen konponketak	1.294.563,16 €
Udal-zergak	859.680,45 €
Alokairuak	201.927,76 €
Sustapenen zaintza	170.400,12 €
Aholkularitzak eta Auditoretzak	652.581,50 €
Notarioak eta Erregistroak	119.247,70 €
GUZTIRA	46.768.967,37 €
Zerga-itzulera	2022
Zergak	3.578.933,23 €

GAZTEAK LANERATZEKO LAGUNTZA

Gazteak lan-merkatuan txertatzen laguntzen jarraitzen dugu. Aurten, UPV/EHUko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoarekin batera 5 plaza eskaini zaizkie urtero ematen duen Etxebizitza Publikoko Masterreko ikasleei. 3 hilabeteko praktikaldia izan da, ordaindutakoa, eraikuntza publikoaren esparruan esperientzia profesionala lortu nahi duten eta Visesan erakunde finkatu batean parte hartzeko aukera topatu duten pertsoneri zuzendua.

GIZARTE-ERAGILEEKIN ETA IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEKIN LANKIDETZA

Eskalantegi kalean, Pasaia (G-033) sustapenean, 2 lokal saldu dizkiogu Pasaia Udalari, inguruko herritarrei udal-zerbitzuak emateko. Halaber, kokapen horretan bertan Gipuzkoako Foru Aldundiari lokal bat saldu diogu. Lokal hori Gautena elkarte gipuzkoarrari utziko diote, espektro autistako nahasmenduak dituzten pertsoneri arreta emateko.

Bestalde, Zorrotzaurreko 104 PTEko sustapenean (B-058) Eusko Jaurlaritzako Ondare Sailari lokal bat saldu diogu Lanbideren tokiko bulegorako.

Lankidetzak horiei aurretik sinatutako lankidetzak gehitu behar zaizkie: Donostian Tutelar Atzegi Fundazioa eta EDE Fundazioarekin; Eibarren Hurkoa Fundazioarekin eta Minbiziaren aurkako Espainiako Elkartearekin; eta Gasteizen Lakuako Ibailakua Auzokideen Elkartearekin.

PROIEKTU SOLIDARIOAK

Visesan lan egiten dugun pertsona guztiontzat elkartasuna oso balio garrantzitsua da, eta hura gauzatzeko hezkuntzaren esparruko proiektuekin egiten dugu lan, eta, ahal dugun neurrian, garapen bidean dauden herrialdeekin, emakumeen rola indartzeko.

Era berean, urtero beste jarduera solidario batzuk ere egiten ditugu, hala nola odola ateratzeko kanpainak, jostailuak biltzea eta kolektibo behartsuei arropa eta tapakiak ematea.


Aurten Jambo Congorekin lankidetzan aritu gara, Kongo Errepublika Demokratikoaren garapena bilatzen duen elkartearekin. Zehazki, langileok ekarpen ekonomikoa egin dugu arreta integraleko eguneko zentroa eraikitzen amaitzeko (osasuna, elikadura, laguntza psikosoziala eta ergoterapia), Shabundako eta inguruetako adinekoentzako.



**NORTZUK EGITEN
DUGU POSIBLE**

VIRESAKO LANTALDEA

Visesan 6 arlo funtzional ditugu



PERTSONENGANAKO ARRETA

BERDINTASUNA ETA KONTZILIAZIOA

Berdintasuna


2022a hasteko, Visasaren Berdintasun Plana (2022-2025) onetsi zen, eta, ondoren, erregistroa egin zen Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren hitzarmen, akordio kolektibo eta berdintasun-planen Erregistroan eta Gordailuan, araudian xedatutakoa betez.

Aurten, berdintasun batzordeak fokua jarri du sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko protokoloa berrikusten eta hedatzen, eta emakumeek gure obra- eta zerbitzu-kontratuetan duten presentzia aztertzen.

Kontziliazioa

Aurten ere Visesak langileei aukera eman die telelana egiteko, lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko xedearekin. Aurten, 29 pertsonak 1, 2 eta 3 eguneko modalitateak aukeratu dituzte, eta beste 3k eskatu dute astean egun batean haien ohiko lanpostua ez den eta etxetik hurbilago dagoen bulego batean lan egiteko.

Hitzarmen kolektiboak ordutegien zenbait modalitate jasotzen ditu, eta horietako bakoitzak sartzeko eta ateratzeko malgutasun handia dute. Horri esker, pertsona bakoitzak modurik onenean uztartzeko aukera dute.



OSASUNAREN ETA LANEKO SEGURTASUNAREN PREBENTZIOA

2022an, COVIDa kudeatzeko izendatutako batzorde espezifikoa desegin dugu, eta erantzukizuna Segurtasun eta Osasun Batzordeari eskualdatu zaio. Prebentzio-ekintzen jarraipenaren ondorioz, CO₂ kontzentrazioa neurtzeko erabilera partekatuko eremuetan arriskuak minimizatzeke, eta murrizketak mailaka malgutzeari esker, besteak beste, jantokia, ibilgailuak eta aretoak normaltasunez erabili ahal izan dira.

Pertsonen osasun psikikoarekin ere sentsibilizatuta, Segurtasun eta Osasun Batzordeak laguntza-ekintzak onetsi ditu iraupen luzeko bajaran dauden eta laguntza psikologikoa behar duten pertsonentzat, eta lan-karga eta lan-harremanak kudeatzeko ikastaroak egin dira.

Gure instalazioetan ematen diren hipopresiboari, luzapeneni eta pilatesari buruzko ikastaroak babesten jarraitzen dugu.

Bestalde, larrialdi-ekipoak berritu dira eta, horretarako, lehen sorospenei eta suteak itzaltzeari buruzko ikastaroak eman dira.

Osasuna zaintzeari dagokionez, gizonentzako nahiz emakumeentzako berariazko probak mantendu ditugu, kanpoko prebentzio-zerbitzuak ezarritako azterketa medikoaz haratago; 40 pertsonak hartu dute parte proba horietan (28 emakume eta 12 gizon), eta helburua da arriskua duten kolektiboetan gaixotasunak prebenitzea eta pertsonen osasuna eta ongizatea babestea.



LAN-HARREMANAK

Visesan, gaur egun, 78 lanpostuko plantilla dugu onetsita. Pertsonen kudeaketari dagokionez, urtea nabarmentzen da amaitzean plaza guztiak beteta zeudelako. 2021ean eta 2022an zehar behar bezala amaitu diren prozesuak gauzatu dira.

Era berean, aldi baterako langileak kontratatu ditugu eta nabarmentzekoak dira Visesak abian jarri dituen birgaitze-bulegoaren eta erakunde laguntzailearen funtzioen kudeaketatik eratorritako jarduera garatzeko formalizatutako kontratazioak, etxebizitzak birgaitzeko eta etxebizitza sozialak eraikitzeko laguntza-programei erantzuteko, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparru orokorraren barruan (PRTE, Next Generation Funtsak).

Aitzitik, amaitutzat ematen ditugu Koroatze proiektuari lotutako aldi baterako kontratu guztiak, proiektua amaitu delako.

Egoera horrek 87,15 puntuko batez besteko plantilla izatera garamatza 2022an, 2021ean baino 5 puntu gehiago (82,07 puntu). Alderik esanguratsuena behin-behinekoen tasan dago, 2021ean 7,65 izatetik 2022an 11,67 izatera igo baita. Koroatze proiekturako genituen aldi baterako kontratuei Next Funtzen proiekturako kontratuak gehitu zaizkie, baita lanpostua gordeta duten pertsonak ordezkatzeko aldi baterako kontratazioak ere.

BARNE-KOMUNIKAZIOA

Barne-komunikazioa funtsezko tresna da Visesan. Intranetaren, arduradunen eta laguntzaileen arteko berezi-bileren, sailtako bileren eta Zuzendaritza Nagusiarekin egiten diren topaketen bidez, helburuak eta horien lorpena transmititzen dira, gure balioak sustatzen ditugu eta pertsonen lana aitortzen dugu.

Proiektu partekatu bateko kide izatearen sentimendua eta integrazio-kultura funtsezko zutabe korporatiboak dira.

EZAGUTZAREN KUDEAKETA

Prestakuntza normalizatzen ari da pandemiaren ondoren, eta aurreko urteetako prestakuntza-orduen mailara iristen ari da. Prestakuntza-planaren lorpen-maila % 58,57koa da, 10etik 7,39 puntuko batez besteko balorazioarekin.

Pertsonen % 100ek gutxienez prestakuntzaren bat egin du, gero eta presentzia handiagoa duen online prestakuntza nabarmenduz.

PERTSONA-KOPURUEN EMAITZEN TAULAK / PERTSONA-KOPURUAREN ADIERAZLEAK

Erantzukizunaren arabeko banaketa	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Zuzendariak	3	4	7
Goi-mailako tituludunak	20	23	43
Erdi-mailako teknikariak	10	2	12
Administrariak	24	3	27
Guztira	57	32	89

Antzintasunaren arabeko banaketa	Emakumeak	Gizonak	Guztira
0 - 2 urte	7	3	10
2 - 5 urte	3	4	7
5 - 10 urte	4	3	7
10 - 20 urte	28	18	46
20 urte baino gehiago	15	4	19
Guztira	57	32	89

Adinaren arabeko banaketa	Emakumeak	Gizonak	Guztira
35 urte baino gutxiago	3	2	5
35 - 50 urte	29	13	42
50 urte baino gehiago	25	17	42
Guztira	57	32	89

Kontratu-motaren arabeko banaketa	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Finkoak	48	29	77
Behin-behinekoak	9	3	12
Guztira	57	32	89

A photograph of a modern, multi-story building facade. The building features a light-colored, possibly white or light grey, exterior with a grid-like pattern of windows and balconies. The balconies are enclosed with dark, possibly black, metal railings. The building is set against a clear, light blue sky. The overall aesthetic is clean and contemporary.

VISESAREN JARDUERA


GURE BALIO-KATEA ETA PROZESUAK

Alokabiderekin, Etxebiderekin, Eraikuntzaren Kalitatearen Laborategiarekin eta Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzekin batera, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politika garatzeko Etxebizitza Sailari eta Zuzendaritzari euskarria ematen dion balio-katea osatzen dugu.

Gure sinergiek aukera ematen digute lurzorua erosi, kudeatu eta urbanizatzeko, haien beharra egiaztatzen duten herritarrentzako kalitatezko etxebizitzak sustatzeko, eta EAEko etxebizitza babestu gehienen alokairua kudeatzeko.

Gure Kalitatea Kudeatzeko Sistema Integratua Euskaliten Kudeaketa Aurreratuko Ereduari begira dago, eta jarraian azaldutako Prozesuen Mapa du ardatz, hura hedatzeko funtsezko elementua baita:





2021-2023 ALDIRAKO ETXEBIZITZEN GIDA PLANA BETETZEA

Hona hemen 2022. urteko adierazleen emaitzak, 2021-2023 aldirako Etxebizitzen Gida Planen Visesari dagozkionak:

VISESAKO PLAN GIDARIAREN AGINTE-TAULA	2022	
	Helburua	Itxiera
Programaren kontratua	500	457
Alokairuan hasitako etxebizitzak (ES/BOEa)	500	502
Salmentan hasitako etxebizitzak (BOE/PTE)	0	0
Lurzorua eskuratzea	300	66

BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZA ESKURAGARRI JARTZEA

LURRAK

Babes publikoko etxebizitzak sustatzeko proiektuak garatu ahal izateko, hasierako urrats gisa lurzoruari buruzko azterketak egin genituen, bai eta ondoren eskuratu, kudeatu eta urbanizatu ere.

Lurzoruaren prospekzioari eta udalekiko harremanari dagokionez, honako hauek egin ditugu:

- 24 udal eta 3 merkataritza-sozietate eta partikular eta 4 banku-erakunde bisitatu ditugu edo horiekin harremanetan jarri gara espediente berrietarako.
- 20 udalekin bilerak egin ditugu, dagoeneko hasitako proiektuetan aurrera egiteko.
- Babes publikoko 66 etxebizitza alokairu-erregimenean sustatzeko lurzorua eskuratu dugu, eta 13 udalerrri aztertu dira jarduketa berrietarako.
- Tolosako Udalarekin hitzarmena sinatu dugu, Visesa Sozietate Publikoaren lurzoruan babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko etxebizitza bakoitzeko 6.000 €-ko udal-ekarpena egiteko.

Horrez gain, lurzoruak eskuratzeko aukera zabalik mantentzen dugu 2019an argitaratutako baldintza agiriaren bidez. Agiri horren helburua da eragile pribatuen parte-hartzea izatea, administrazio publikoek gain, eskuragarri dagoen lurzoru babestuaren eskaintza handitzeko.

SUSTAPENA

Hona hemen 2022ko gure sustapen-jarduera zehazki

VISESAK HASITAKO SUSTAPENAK (BEHIN-BEHINEKO KALIFIKAZIOAREKIN)	
B-047 Bolueta R-3	144 BOEa
B-080 Getxo Venancios	54 BOEa
G-072 Eibar	36 BOEa
G-056 Tolosa Amaro	111 BOEa
G-074 Zarautz Salberdin	91 BOEa
G-075 Hondarribia Presa	66 BOEa
Alokairuan daude etxebizitzak guztira	502 etxebizitza
Hasitako etxebizitzak guztira (behin-behineko kalifikazioarekin)	502 etxebizitza

PROIEKTUAREN HASIERAKO LIZITAZIOA DUTEN SUSTAPENAK	
B-132 Ortuella	90 BOEa
B-133 Sopela ASU	33 BOEa
G-056 Tolosa	111 BOEa
G-074 Zarautz Salberdin	91 BOEa
Alokairuan daude etxebizitzak guztira	325 etxebizitza
Proiektu kalifikazioa duten etxebizitzak guztira	325 etxebizitza

OBRA LIZITAZIOA DUTEN SUSTAPENAK	
A-038 Amurrio	60 VS
B-055 Sestao Vega-Galindo	180 VPOa
B-079 Getxo Sarrikobaso	68 VPOa
B-082 Barakaldo El Carmen	108 VPOa
B-126 Getxo Ituribarri	58 VPOa
B-131 Sopela Loiola	24 VPOa
B-133 Sopela ASU	33 VPOa
G-078 Orio	46 VPOa
G-079 Urretxu	24 VPOa
Alokairuan daude etxebizitzak guztira	601 etxebizitza
Obra lizitatuta duten etxebizitzak guztira	601 etxebizitza

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAN ADJUDIKATUTAKO OBRAK DITUZTEN SUSTAPENAK	
B-055 Sestao Vega-Galindo	180 BOEa
B-079 Getxo Sarrikobaso	68 BOEa
B-082 Barakaldo El Carmen	108 BOEa
B-126 Getxo Ituribarri	58 BOEa
G-078 Orio	46 BOEa
G-079 Urretxu	24 BOEa
Alokairuan daude etxebizitzak guztira	484 etxebizitza
B-094 Zorrotzaurre DB2	120 BOE
Salgai daude etxebizitzak guztira	120 etxebizitza
Administrazio Kontseiluan adjudikatutako etxebizitzak guztira	604 etxebizitza

OBRA HASIERA DUTEN SUSTAPENAK (ZUINKETA-AKTA)	
A-043 Vitoria Salburua	166 BOEa
B-055 Sestao Vega-Galindo	180 BOEa
B-079 Getxo Sarrikobaso	68 BOEa
B-082 Barakaldo El Carmen	108 BOEa
B-126 Getxo Iturribarri	58 BOEa
G-078 Orio	46 BOEa
G-079 Urretxu	24 BOEa
G-077 Zumarraga	72 BOEa + 36 ES
Alokairuan daude etxebizitzak guztira	758 etxebizitza
B-094 Zorrotzaurre DB2	120 BOE
Salgai daude etxebizitzak guztira	120 etxebizitza
Obra hasiera duten etxebizitzak guztira	878 etxebizitza

OBRA-HARRERA DUTEN SUSTAPENAK	
B-125 Getxo Iturribarri	91 ES
G-066 Azkoitia Floreaga	14 ES
Alokairuan daude etxebizitzak guztira	105 etxebizitza
B-058 Zorrotzaurre	104 PTE
G-066 Azkoitia Floreaga	16 BOE
Salgai daude etxebizitzak guztira	120 etxebizitza
Obra-harrera duten etxebizitzak guztira	225 etxebizitza

AMAITUTAKO SUSTAPENAK (BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOAREKIN)	
B-125 Getxo Iturribarri	91 ES
G-066 Azkoitia Floreaga	14 ES
Alokairuan daude etxebizitzak guztira	105 etxebizitza
B-058 Zorrotzaurre	104 PTE
G-066 Azkoitia Floreaga	16 BOE
Salgai daude etxebizitzak guztira	120 etxebizitza
Amaitutako etxebizitzak guztira (behin betiko kalifikazioarekin)	225 etxebizitza

ESKRITURATZE-LANA HASITA DUTEN SUSTAPENAK	
B-125 Getxo Iturribarri	91 ES
G-066 Azkoitia Floreaga	14 ES
Alokairuan daude etxebizitzak guztira	105 etxebizitza
B-058 Zorrotzaurre	104 PTE
G-066 Azkoitia Floreaga	16 BOE
Salgai daude etxebizitzak guztira	120 etxebizitza
Eskrituratze-lana hasita duten etxebizitzak guztira	225 etxebizitza

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza salmentan – BOEa: Babes ofizialeko etxebizitza alokairuan – ES: Gizarte-laguntzako etxebizitza – PTE: Prezio tasatuko etxebizitza salmentan – EL: Etxebizitza librea.

2022an EAEn hasi eta amaitutako etxebizitzak

2022an, babes publikoko 1.873 etxebizitza hasi ziren EAEn, administrazioaren kalifikazioa behar zutenak; eta horietatik, guztizkoaren % 27 eman ditugu. (BOE+ES+PTE).

2022an, babes publikoko 1.198 etxebizitza amaitu ziren EAEn, administrazioaren kalifikazioa behar zutenak; eta horietatik, guztizkoaren % 19 eman ditugu. (BOE+ES+PTE).

Laneko arriskuen prebentzioa

Laneko ezbehar-kopurua murrizten laguntzeko, funtsezkoa da Visesarentzat gure sustapenetan lan egiten duten pertsonen segurtasun- eta osasun-baldintza egokiak sustatzea.

Horretarako, gure lantaldeko segurtasun- eta osasun-prebentzioko teknikari-talde bat arduratuko da obrako tokian bertan egiten den prebentzio- eta lan-kudeaketaren jarraipenaz eta aholkularitza teknikoaz. Kudeaketa hori segurtasun- eta osasun-koordinatzeak eta enpresa kontratistak eta haien azpikontratek egiten dute, obraren prebentzio- eta lan-arloan eragina duten desbideratzeak antzemanaz, eta kasu bakoitzean legez ardura duen eragileak horiek berehala zuzen ditzan sustatuz.

2007. urteaz geroztik, ez da istripu hilgaririk gertatu gure sustapenetan, eta 2022an 14 istripu gertatu dira, horietatik 13 arinak.

Lankidetzat-hitzarmenaren barruan Visesak eraikigintzako obretan izandako intzidentzia-indizeen emaitzak			
Urtea	EAEko intzidentzia-indizea (1.000 langileko)	Visesa obretako intzidentzia-indizea (1.000 langileko)	Intzidentzia-indizeen erlazioa (%)
2015	78,08	14,34	18,37
2016	80,78	52,64	65,17
2017	86,27	34,68	40,20
2018	85,10	37,61	44,20
2019	67,03	52,58	78,45
2020	61,58	37,9	61,54
2021	66,55	36,20	54,39
2022	71,39	43,01	60,24

MERKATURATZEAN

Etxebizitzen merkaturatzea

Jarraian, laburpen-taula bat aurkezten dugu, lurraldeen arabera, etxebizitza babestuen merkaturatzeari buruz, bai partikularrei saltzeko, bai administrazioekin alokairu sozialera bidera-

tzeko. Babes ofizialeko etxebizitzen (BOE) salerosketa (SE), etxebizitza tasatua (PTE) eta eros- teko aukeradun errentamendua sartzen dira salmentan; eta alokairuan, berriz, etxebizitza soziala (ES) eta babes ofizialeko etxebizitza alokairuan (BOEa).

Eskriturazioaren aurretik sinatutako kontratuen kopurua eta formalizatutako eskriturak erakusten dira, eta horiei buruzko informazioa zabalduko da ondorengo ataletan:

	Kontratuak			Eskriturak		
	Salmenta - partikularrak		Alokairua - Alokabide	Salmenta - partikularrak		Alokairua - Alokabide
	SE	AROC	Alokairu soziala	SE	Ekitaldia AROC	Alokairu soziala
Araba	16	4	60	10	8	-
Bizkaia	72	3	346	152	7	91
Gipuzkoa	11	7	-	17	2	14
Guztira	99	14	406	179	17	105
	113		406	196		105
	519			301		

SE: Salerosketa-kontratuak. AROC: Erosteko aukeradun alokairua

a) Sinatutako kontratuak

a.1) Partikularrekin

2022an guztira 113 kontratu sinatu ditugu (salerosketakoak eta AROCekoak).

Kontratu horietatik 99 zuzeneko salerosketei buruzkoak dira (16 Araban, 72 Bizkaian eta 11 Gipuzkoan), aurreko urteetan merkaturatzen hasi ziren sustapenei dagozkienak. Gainerako 14 kontratuak erosteko aukera duten alokairu-kontratuei dagozkie (6 AROC I eta 8 AROC II), honela banatuta: 4 Araban, 3 Bizkaian eta 7 Gipuzkoan.

a.2) Administrazioekin

Erakundeentzat sustatutako alokairuko etxebizitzetarako dagokienez, aurten 4 sustapenen salerosketa-kontratuak sinatu ditugu Alokabiderekin, alokairu sozialera bideratzeko: Amurrión 60 etxebizitza sozial (ES), Sestaon babes ofizialeko 180 etxebizitza alokairuan (BOEa), Barakaldon 108 BOEa eta Getxo-Iturribarrin 58 BOEa.

b) Sinatutako eskriturak

b.1) Partikularrekin

Aurten Azkoitiko eta Bilboko Zorrotzaurreko sustapenak entregatu ditugu, 16 BOErekin eta 104 PTEren, hurrenez hurren.

Bai sustapen horietatik, bai aurreko urteetan amaitutako beste batzuetatik, 196 eskritura formalizatu ditugu guztira (179 salerosketa-kontratuetatik datoz eta 17 AROCen erosteko aukeratik), honela banatuta:

- **Araba:** 18 eskritura (10 salerosketa-kontratuetatik datoz eta 8 AROCen erosteko aukeratik).
- **Bizkaia:** 159 eskritura (152 salerosketa-kontratuetatik datoz eta 7 AROCen erosteko aukeratik).
- **Gipuzkoa:** 19 eskritura (17 salerosketa-kontratuetatik datoz eta 2 AROCen erosteko aukeratik)

b.2) Administrazioekin

Alokabide alokairua kudeatzeko sozietate publikoarekin 105 etxebizitza sozial eskrituratu ditugu, 91 (ES) Getxo-Iturribarrin eta 14 (ES) Azkoitian

c) Salmenta-erregimenean etxebizitza babestuak adjudikatzeko zozketak

2022an ez da zozketarik egin Visesak sustatutako etxebizitza babestuak adjudikatzeko.

d) Babestutako etxebizitzak zuzenean adjudikatzea

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren Aginduaren bidez (2022ko martxoaren 14an emana), Bilboko Basurto-Krug 78 (BOE) sustapenean hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzen hasi gara Visesan, zuzeneko adjudikazioaren bidez.

Sustapen horrek bat egiten du adjudikazio zuzena indarrean duten sustapenekin; eta baldintzak betetzen dituen edonork eskura dezake etxebizitza bat modalitate honetan:

Adjudikazio zuzeneko sustapenak indarrean dituzten herriak	
Araba	Iruña Oka, Salburua eta Zabalzana (Vitoria-Gasteiz)
Bizkaia	Ugao-Miraballes, Gernika, Durango, Leioa, Basauri, Bolueta, Zorrotzaurre eta Basurto-Krug (Bilbao), eta Barakaldo,
Gipuzkoa	Eskoriatza, Arrasate eta Beasain

Elementu libreak merkaturatzea (garajeak, lokalak eta trastelekuak)

		Kontratuak		Eskriturak	
		SE	AROC	SE	Ekitaldia AROC
Lokalak	Araba	1	4	1	2
	Bizkaia	5	10	5	5
	Gipuzkoa	3	-	3	1
	Guztira	9	14	9	8
Garajeak + trastelekuak	Araba	8	20	8	3
	Bizkaia	62	20	62	8
	Gipuzkoa	43	45	43	27
	Guztira	113	85	113	38
Guztira		122	99	122	46
		221		168	

a) Lokalak

a.1) Sinatutako kontratuak

Lokalen salerosketako 9 kontratu formalizatu ditugu: 1 Araban, 5 Bizkaian eta 3 Gipuzkoan.

Bestalde, erosteko aukera duten 14 alokairu-kontratu sinatu ditugu (4 Araban eta 10 Bizkaian).

a.2) Sinatutako eskriturak

3 lokal Araban, 10 Bizkaian eta 4 Gipuzkoan, guztira eskrituratutako 17 lokal (horietatik 9 salerosketa-kontratuetatik datoz eta 8 AROCen erosteko aukeratik).

b) Garajeak eta trastelekuak

b.1) Sinatutako kontratuak

Garajeak eta trastelekuak erosteko 113 salerosketa-kontratu (8 Araban, 62 Bizkaian eta 43 Gipuzkoan) eta garajeak erosteko 85 alokairu-kontratu sinatu ditugu; hau da, guztira 198 garaje- eta trasteleku-kontratu sinatu dira 2022an zehar.

b.2) Sinatutako eskriturak

Aurten, 151 garaje eta trastelekuren eskriturak formalizatu ditugu. Horietatik 116 (8 Araba, 64 Bizkaia eta 44 Gipuzkoa) zuzeneko salerosketak dira, eta 35 AROCeke erosteko aukerakoak (3 Araban, 6 Bizkaian eta 26 Gipuzkoan).

Bezeroen gogobetetzea

Aldian-aldian, eskaintzen ditugun sustapenekiko eta zerbitzuekiko gogobetetasuna neur-tzen dugu, erabiltzaileen iritzia ezagutzeko eta hobetu beharreko arloak hautemateko.

Aurten beste azterlan bat egin dugu babes publikoko etxebizitzaren erosleen gogobetetasuna neurtzeko.

1) Babes publikoko etxebizitzaren erosleen gogobetetze-mailari buruzko azterketa

Aurtengo beste azterlan bat egin dugu honako sustapen hauetako babes publikoko etxe-bizitzaren erosleei egin zaie: Barakaldo 72 BOE (B-086), Basauri-Sarratu 65 BOE (B-097) eta Zarautz 30 PTE (G-070).

Jarraian, aztertutako ezaugarri nagusien balorazioen laburpena erakusten da:

SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BABESTUEN GOGOBE-TETZE-MAILARI BURUZKO AZTERKETA	BATEZB.
Gogobetetze-indize orokorra	69,96
Etxebizitza (kalitatea eta akaberak)	65,75
Diseinua, kokapena eta neurriak (etxebizitza eta eranskinak)	77,56
Prezioa	73,32
Zerbitzua entregatzen den arte	64,75
Zerbitzua entregatzen den arte	61,45
Visesaren irudi instituzionala	65,53
Webgunea	67,95

Visesaren indarguneak osatzen dituzten faktoreak etxebizitzaren eta eranskinen diseinua-rekin, kokapenarekin eta dimentsioekin lotuta daude, baina gainerako eremuetan ere indar-guneak jasotzen dira: erosotasun akustikoa, erosotasun termikoa, diseinua eta banaketa, lo-gela kopurua, etxebizitzaren kokapena eta tamaina, trastelekuaren neurriak eta kokapena, atariaren eta eskaileren diseinua eta neurriak, etxebizitzaren azken prezioa, eta teknikariaren (aurre-entrega) eta Call Center-en (saldu ondoko zerbitzua) tratua eta adeitasuna.

Saldu ondoko zerbitzua

Gorabehera teknikoak jabeek etxebizitza entregatu ondoren aurkezten dituztenak dira, eta eraikuntza-alderdiekin, akaberekin, funtzionamenduekin eta abarrekin dute lotura. Visesa-ren Saldu Ondoko Arreta Zerbitzua lan egiten ari da haren ebazpena bermatzeko eta berriro gerta ez dadin beharrezkoak diren ekintzak ezartzeko. Bi kanal ditugu harrera egiteko:

- Call Centerra: guztira 1.982 dei jaso ditugu, zerbitzu-maila % 97koa izan da 2022an.
- Sap@visesa.eus: 2.484 mezu elektronikoko jaso ditugu.

Urtean zehar Saldu Ondoko Arreta Zerbitzuan jasotako gorabeheren % 79,74 onartu egin ditu Visesak, eta horietatik % 95,5 amaitu egin dira.

HIRIA BERRITZEKO ETA BIRGAITZEKO PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

ZORROTZAURRE

Zorrotzaurre uhartea San Ignazio eta Deustu parean dago, eta Nerbioi ibaiak eta Deustuko kanalak mugatzen dute. Helburu bikoitzarekin sortu zen: alde batetik, jasangarritasunarena, eta beste aldetik, dagoeneko zegoen hiri bat berrerabiltzearena. Horretarako, Bilboko eremu narriatu bat birgaitu zen.

Zorrotzaurrek 822.551,63 m²-ko hedadura du; eta hiri-garapen trinkoa lortzeko eta mugikortasun jasangarria ahalbidetzeko beharrezkoak diren erabileren eta dentsitatearen nahasketarekin diseinatu da. Zorrotzaurre berriaren bi herenek (eremu mistoa) erabilera publikoa izango dute, 155.893 m² -ko espazio libreak eta 84.936 m² -ko zuzkidura publikoetarako partzelak barne. Horietan, hezkuntza-, osasun-, kirol- eta kultura-arloko ekipamenduak egingo dira. 201.360 m² jarduera ekonomikorako erabiliko dira.

Zorrotzaurre bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko auzo bihurtzen ari da, oinezkoen, txirrindularien eta garraio publikoaren mugikortasunari lehentasunezko tratamendua emanez, eta inguruko bizitegi-, industria- eta portu-memoria zainduz.

5.474 etxebizitza inguru hartuko ditu, horietatik erdiak babes publikokoak izango dira, 1.101 Visesak sustatuko ditu eta 376 Eusko Jaurlaritzak.

Zorrotzaurreko HAPB 2012ko azaroan behin betiko onetsi zenean, bi jarduketa-integratu mugatu ziren: A1 eta A2, honako eraikuntza-eskema honekin:

Tipologia	A1	A2	Total
BOE	1.262	110	1.372
PTE	1.061	315	1.376
EL	2.390	336	2.726
	4.713	761	5.474

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza salmentan - PTE: Prezio tasatuko etxebizitza salmentan - EL: Etxebizitza libre.

Era berean, Zorrotzaurreko eremu mistoko A1eko HJPk (Hirigintzako Jarduketa Programak) bi egikaritze-unitate ditu:

- 1. EU: 389.654 m²-ko azalerarekin. San Inazio, Deustu Bekoa, Deustuko Erribera eta Zorrotzaurreko Erribera eremuei lotutako lurak hartzen ditu (Deustuko kanalaren eskuinaldea eta etorkizuneko uhartearen iparraldeko eta hegoaldeko puntak).
- 2. EU: 167.405 m²-ko azalerarekin. HAPBk Erdigunea izendatutako uhartearen eremua hartzen du.

Honako eraikuntza-eskema hau du:

Tipologia	AI1		Guztira
	EU1	EU2	
BOE	733	529	1.262
PTE	805	256	1.061
Etxebizitza librea	1.486	904	2.390
	3.024	1.689	4.713

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza salmentan – PTE: Prezio tasatuko etxebizitza salmentan – EL: Etxebizitza librea.

Jarraian, Visesari dagokiona zehaztu dugu:

Etxebizitza guztira	AI1							EU2 (*)	AI2
	SI-2	DB-2	RD-3	RD-6	RZ-2	RZ-3	RZ-15		
945 (120 BOE + 206 BOEa + 382 PTE + 237 EL)	104 PTE	120 BOE	117 PTE	66 BOEa	116 EL	146 PTE	68 EL	31 BOEa 15 PTE 53 EL	109 BOEa

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza salmentan – PTE: Prezio tasatuko etxebizitza salmentan – EL: Etxebizitza librea.

2022. urtean mugarri garrantzitsuak izan dira Zorrotzaurren eraikitzen ari garen sustapenetan: babes ofizialeko 120 etxebizitza salmentan sustatzeko obrari ekin diogu, eta prezio tasatuko 104 etxebizitzak jabeei eman dizkiegu.



SESTAO VEGA-GALINDO

“Vega-Galindo” bizitegirako hiri-lurzoruaren eremua Sestaoko hirigunearen mugakidea da, eta proiektu horren helburua da bizitegi-eremu degradatuenetako baten birmoldaketa eta birgaitzea berregituratzea eta erraztea, bai eta babes publikoko etxebizitzetarako lurzoria ahalbidetzea ere.

Visesak Sestaoko hirigunearen mugakidea den Vega-Galindo eremuan proiektuaren helburua da bizitegi-eremu degradatuenetako baten birmoldaketa eta birgaitzea berregituratzea eta erraztea, bai eta babes publikoko etxebizitzetarako lurzoria ahalbidetzea ere.

“Puntan” guztira 1.351 etxebizitza eraikitzea planteatzen da, bi egikaritze-unitatetan banatuta: 1. EU eta 2. EU. Guztira 163 etxebizitza babestu sustatu dira 1. EUn (58 ES, 52 BOEa, 53 BOE), eta beste 180 BOEa eraikitzeko lizitazioa egin da eta 2022an hasi dira obrak. Bestalde, 2. EU birdefinitzeko prozesuan dago gaur egun.

Hona hemen 1.351 etxebizitzen banaketa tipologiaren arabera (1. UE + 2. UE), eta horietatik zeintzuk dagozkion Visesari:

Tipologia	Etxebizitza kopurua	EU 1	EU 2	Visesari dagozkio (% 100 1. EU + % 28 2. EU)
BOE	248	52	196	107
BOE-a	233	233		233
ES	120	58	62	75
PTE	345		345	97
PTEa	-			-
EL	405		405	113
GUZTIRA	1.351	343	1.008	625

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza salmentan – BOEa: Babes ofizialeko etxebizitza alokairuan – ES: Gizarte-laguntzako etxebizitza – PTE: Prezio tasatuko etxebizitza salmentan – EL: Etxebizitza librea.

Jarduera honek onura handiak dakartza Vega-Galindoko eremura, 3 ikuspegitatik:

- **Sozialak:** Auzoaren irudia hobetzea, azpietxebizitzaren ordean etxebizitza duinak jartzea, aisialdirako gune bat berreskuratzea Bilboko itsasadarraren ondoan (San Frantzisko zelaia), eta garraio-azpiegiturak berrantolatzea, Sestaorako eta inguruko udalerrietarako sarbideak eta lotura konponduz.
- **Ingurumenekoak:** Lehendik dauden industria-lurzoruak deskontaminatzea, 1. EU urbanizatzea (5.700 m²) eta Galindo itsasadarraren ingurua hobetzea, haren erribera herritarren gozamenerako berreskuratzean.
- **Kulturalak:** Egindako indusketa arkeologikoak orain arte Bizkaian egin den horrelako (aztertutako azalerari dagokionez) esku-hartze handiena ekarri du.

BOLUETA-BILBAO

Bolueta hiri- eta ingurumen-berroneratze proiektu gisa finkatzen da, erabiltzen ez den industria-eremu bat eraldatu eta Bilboren onurarako gune bihurtzen baita. Visesak Bilboko Udalarekin eta Neinorrekin batera hartzen du parte.

Gizartea birsortzeko proiektu garrantzitsua da; izan ere, sustatu beharreko 1.100 etxebizitzetatik 680 administrazio publikoek garatuko dituzte, eta babes publikoko araubideren baten mende egongo dira. Eraikuntzaren ikuspegitik ere nabarmentzekoa da, energia aurrezte eta material natural eta jasangarriekin eraikitzea baitu ardatz.

Horrekin guztiarekin, Boluetaren proposamenak onurak dakartza hainbat ikuspegitatik:

- **Ingurumenekoak:** Oso eraldatuta dagoen lurzoria berreskuratzea bizitegi-erabilera berrirako, aisialdirako guneak eta erriberako pasealekua sortzea, energia-efizientziako neurriak eta garraio kolektiboaren, oinezkoen eta bizikleten erabilerekin lehentasuna. Gure eraikinetan instalazio kolektiboak eta % 75eko estaldura duen mikro-kogenerazioko sistema bat daude, zeinak energia-kontsumoa nabarmen murrizten duen. Diseinuan Passivhaus: delakoaren 5 printzipioak aplikatu dira: isolamendua hobetzea, zubi termikoak murriztea, airearekiko hermetikotasuna, arotzeria espezifikoak eta aireztapena beroa berreskuratuz.

- **Ekonomikoak:** Urte osoan berokuntzako gastu nulua edo ia nulua duten etxebizitzak, kontsumoaren % 75eko murrizketarekin (A kalifikazioa), eta eraikinen diseinu trinkoa, elementu komunetan mantentze-lanen gastuak optimizatzea ahalbidetzen duena.
- **Sozialak:** la 12.000 pertsonen parte hartu dute hiri-diseinua hautatzen, legez eska daitekeen ehuneko hirukoizten duen etxebizitza babestuen programa jarri da herritarren eskura, 23 sinatu dira berriz ostatu har dezaketen egoiliarrekin, jarduera ekonomikoen 17 lekualdaketa egin dira, eta industria-arkeologiako elementuak berreskuratu dira, hala nola Fundiciones Santa Anako tximinia.

Jarraian, etxebizitzaren tipologia zehazten dira (Visesari dagozkionak), bai eta garapen-faseak ere: (datuak 2022-12-31n)

ETXEBIZITZAK GUZTIRA	1. FASEA		3. FASEA	4. FASEA
	RE-1A1	RE-1A2	RE-3	RE-4
680	63 ES 108 BOE	190 BOE	144 BOE	175 BOEa

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza salmentan – PTE: Prezio tasatuko etxebizitza salmentan – EL: Etxebizitza librea.

Salmentan dauden babes ofizialeko 144 etxebizitzaren (BOE) proiektua aurrera doa, eta dagoeneko amaituta dauden bi eraikinei gehituko zaie; lehenengoak 108 BOE + 63 ES ditu eta bigarrenak 190 BOE.

SMARTENCITY KOROATZE AUZOA

SmartEnCity (2016-2022) Europako H2020 I+G+b programak ("hiriak eta komunitate adimendunak") finantzaturako proiektua da. Helburua CO₂-rik gabeko hiriak sortzeko estrategia ko-

mun bat diseinatzea da, eta Vitoria-Gasteiz "itsasargi-hiria" da, non energia-efizientziaren, garraioaren eta IKTen inguruko irtenbide-tarte bat aplikatzen den modu integratuan, betiere pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Visesa Vitoria-Gasteizko tokiko proiektuaren koordinatzailea da. Bazkide nagusiak Vitoria-Gasteizko Udala eta CEA (Ingurumen Ikerketarako Zentroa), Giroa – Veolia, Energiaren Euskal Erakundea (EEE) eta Mondragon Korporazioa dira. Era berean, jabeen 26 erkidegoetako birgaitze energetiko integralaren ardura dugu, 302 etxebizitza guztira.

Europako SmartEnCity proiektua Estoniako Tartu eta Sonderborg hirietarako, Danimarkan eta Vitoria-Gasteizen garatu da. Horretarako, guztira 31.874.538 euroko aurrekontua eta 27.890.139 euroko H2020 dirulaguntza izan ditu. Zehazki, Vitoria-Gasteiz hiriarri esleitutako aurrekontua 12.790.000 eurokoa izan da, eta horietatik 6.889.726 euro Visesak birgaitutako 302 etxebizitzetarako erabili dira. Eraikinen birgaitzean, jabeek kostu osoaren % 46 ordaintzen dute gehienez.

Gainera, Vitoria-Gasteizko Koroatze auzoko Europako SmartEnCity proiektu horrek erakutsi du birgaitutako etxebizitzaren monitorizazioa funtsezko tresna dela ezarritako irtenbide energetikoen efizientzia bermatzeko eta eraikin jasangarriagoak lortzeko. Monitorizazioaren emaitzei esker, egiaztatu ahal izan da ezarritako energia-efizientziako neurriek energia-kontsumoa % 50 murriztea lortu dutela, batez beste, birgaitzearen aurreko eraikinen kontsumoarekin alderatuta, eta CO₂ isurketen % 90 inguru, klima-aldaketaren aurkako borrokan lagunduz. Gainera, monitorizazioari esker, arazoak detektatu eta zuzendu ahal izan dira irtenbide energetikoen inplementazioan, eta horrek haien efizientzia eta errendimendua hobetu ditu. Atera den beste datu garrantzitsu bat da hirukoiztu egin dela birgaitutako etxebizitzak 19°C eta 21°C arteko atalasean dauden orduen kopurua; beraz, horien erosotasuna nabarmen handitu da, haien bizigarritasun-baldintzak eta etxebizitza horietan bizi diren jarduketaren onuradunen bizi-kalitatea hobetuz.

Asko dira proiektu horrek bizilagunei ekarri dizkien onurak. Ikuspegi sozialetik, nabarmentzekoak dira: etxebizitzaren erosotasuna hobetzea, berokuntza-kontsumoa % 50eraino aurrezteak (% 15-20ko aurrezpen ekonomikoa fakturan), beste eraikin batzuetan jarduketa berriak egiteko trakzio-efektua, informazio gehiago eta autokudeaketarako gaitasun hobea duten herritarrek birgaitutako etxebizitzak eraginkortasunez erabiltzea, auzoaren irudia hobetzea eta berritutako etxebizitzek balioa handitzea. Ingurumenaren ikuspegitik, birgaitutako etxebizitza guztiek A energia-ziurtagiria lortu dute, berokuntzaren energia-eskaera % 50 murriztu da eta % 90eko murrizketa CO₂ isurietan. Era berean,

gas-hornidura tokiko biomasako iturri berriztagarriekin ordezkatu da, ur beroaren sistema eta berokuntza elikatzeke, eta, horretarako Bero Sarea jarri da martxan. Azkenik, proiektuak onura ekonomikoak ekarri dizkiei birgaitutako etxebizitzari, Europako Batzordeak, Gasteizko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak errenten arabera jasotako dirulaguntzei esker, baita tokiko erkidegoari ere, enplegua sortuz eta zerga-itzulketaren bidez.

2021ean Etxebizitzaren eta Lurzoruaren Sustatzaile Publikoen Espainiar Elkartearen (AVS) eskutik jasotako sariari eta Euskadiko faseko QIA Quality Innovation Award sariari, aurten, 2022an, Prize aintzatespena gehitu zaie, Quality Innovation Awards-QIA delakoek nazioarteko fasean, sektore publikoko berrikuntzaren kategorian.

2022ko ekainaren 14an eta 15ean, proiektuaren azken hitzaldia eman zen Vitoria-Gasteizen, eta uztailean proiektuari amaiera ofiziala eman zitzaion.

NEXT FUNTSAK - BIRGAITZE ENERGETIKORAKO LAGUNTZAK

2022an, Visesan, etxebizitza pribatuen eraikinak birgaitzeko laguntzak kudeatzeko jarduera diseinatu, inplementatu eta garatzen hasi gara. Europar Batasunak finantzatzen ditu, Next Generation funtsen bidez, eta Espainiako Gobernuaren (Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa - MITMA) eta Eusko Jaurlaritzaren bidez bideratzen dira.

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko laguntza-programa hori urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuak arautzen du estatu mailan.

EAEEn aplikatzeko, Eusko Jaurlaritzak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Agindua argitaratu zuen. Agindu horren bidez, bizitegi-eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duen birgaitzeetarako laguntza-programen oinarriak zehaztu eta deialdi publikoa arautzen da.

2022ko ekainaren 1etik aurrera, eta Eusko Jaurlaritzaren enkarguz, Visesan birgaitze-bulegoaren eta laguntza-programa horien erakunde laguntzailearen zereginak garatzen hasi ginen, 2022ko azaroaren 23an bien artean sinatutako hitzarmenak jasotzen duenaren arabera.

Zeregin horiek betetzeko, gure plantilla indartu dugu, eta, horretarako, bost pertsona kontratatu ditugu, batez ere herritarrei aurrez aurreko arreta emateko. Era berean, espedienteak kudeatzen, izapidetzen eta berrikusten laguntzeko kanpoko zerbitzuak kontratatu ditugu.

Hauek dira ildoak eta programak::

Eusko Jaurlaritzaren 1. Ildoa Obra partikularretarako finantza-neurriak (familia bakarreko etxebizitzak edo eraikinen elementu pribatiboak: kontserbazioa, bizigarritasuna, energia-efizientziaren hobekuntzak, irisgarritasuna eta akabera orokorra egokitzea eraikuntza egokira egokitzeko).

Eusko Jaurlaritzaren 2. Ildoa Finantza-neurriak eraikuntzako elementu komunitario erkidegoko obretarako, instalazioak edo zerbitzu komunak bi familiako etxebizitzetan/atxikietan eta egoitza-eraikin kolektiboetan: kontserbazioa, segurtasuna, bizigarritasuna, energia-efizientzia eta irisgarritasuna hobetzea.

3. Programa Next Familia anitzeko eraikinetan eta familia bakarreko/bi familiako etxebizitzetan energia hobetzeko jarduketak eraikin mailan (arreta berezia jarriz eraikuntzaren inguratzailan).

4. Programa Next Familia anitzeko eraikinetan eta familia bakarreko/bi familiako etxebizitzetan kokatutako etxebizitza partikularren energia-efizientzia hobetzeko jarduketak.

5. Programa Next Birgaitzeko eta birgaitze-proiektuak idazteko eraikinaren liburua egiteko laguntza-programa.

6. Programa Next Energetikoki efizienteak diren eraikinetan alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzekeo laguntza-programa.

Aurten, 2022an, aurrez aurreko 377 hitzordu artatu ditugu eta 2.993 telefono-dei jaso ditugu, eta 1.912 etxebizitzari dagozkien 343 laguntza-eskaera jaso ditugu.

Bestalde, jarraian zehazten dira Visesak Next Funtsen 6. programan finantzatutako jarduerak eta erreserbako jarduketak:

Visesaren jarduketak, Next Funtsen bidez finantzatuta.	Egiteke dauden jarduketak
<p>Salburua 152 BOEa - Gasteiz (Araba)</p> <p>Salburua 166 BOEa - Gasteiz (Araba)</p> <p>Amurrio 60 ES - Amurrio (Araba)</p> <p>Amurrio 42 ES - Amurrio (Araba)</p> <p>Sestao 180 BOEa - Sestao (Bizkaia)</p> <p>Sarrikobaso 68 BOEa - Getxo (Bizkaia)</p> <p>Venancios 54 BOEa - Getxo (Bizkaia)</p> <p>Barakaldo 108 BOEa - Barakaldo (Bizkaia)</p> <p>Santurtzi 42 ES - Santurtzi (Bizkaia)</p> <p>Sopela 24 BOEa - Sopela (Bizkaia)</p> <p>Hondarribia 66 BOEa - Hondarribia (Gipuzkoa)</p> <p>Zumarraga 36 ES + 72 BOEa - Zumarraga (Gipuzkoa)</p> <p>Orio 46 BOEa - Orio (Gipuzkoa)</p> <p>Urretxu 24 BOEa - Urretxu (Gipuzkoa)</p>	<p>Iturribarri 58 BOEa – Getxo (Bizkaia)</p> <p>Bolueta RE-3 144 BOEa – Bilbo (Bizkaia)</p> <p>Cortes 23 ES – Bilbo (Bizkaia)</p> <p>Asu 33 BOEa – Sopela (Bizkaia)</p> <p>Egazelai 36 BOEa – Eibar (Gipuzkoa)</p> <p>Salberdin R-9 91 BOEa – Zarautz (Gipuzkoa)</p>
<p>14 sustapen-1.140 etxebizitza Aurreikusitako dirulaguntza: 48.580.000 €</p>	<p>6 sustapen – 385 etxebizitza Aurreikusitako dirulaguntza: 58.305.557 €</p>

ERALDATZEN GAITUZTEN BERRIKUNTZA ETA JASANGARRITASUNA

Visesan, sektorearen kalitatearen, jasangarritasunaren eta berrikuntzaren bidez, etxebizitzak eraikitzeko prozesua hobetzea bilatzen dugu, arreta ingurumenean eta herritarrengan jarrita.

Azken urteotan, digitalizazioa, industrializazioa eta iraunkortasuna dira Visenaren berrikuntzaren funtsezko hiru zutabeak. Hiru gai horiek Visenaren prozesu guztien palanka eraldatzaile izatera deituta daude, alokairuko etxebizitza babestuen parke jasangarriagoa eta etxebizitza eskatzen duten herritarren beharretara egokituagoa lortzeko, eta, aldi berean, Visenaren efizientzia hobetzeko sozietate publiko gisa.

Jarraian, lantzen ari garen berrikuntza- eta jasangarritasun-proiektuak erakutsi ditugu.

INDUSTRIALIZAZIOA

2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Planaren helburuetako bat industrializazioa sustatzea da. Zehazki, ekintza estrategikotzat hartzen du eraikuntza-prozesuetan industrializazioa bultzatzea eta, horretarako, ikerketa, berrikuntza, prestakuntza eta aplikazio operatiboaren arloetan ekimen zehatzak sustatzea. Esparru horretan, Visenaren helburua da alokairuko gizarte laguntzako etxebizitza eraikuntza industrializatuaren ildoan aurrera egitea, eta gure helburua da alokairuko babes publikoko etxebizitza industrializatuaren Liburu Zuria sortzea.

Horretarako, Visesak gaur Berrikuntzaren Erosketa Publikoaren prozedura hau abiarazten du; batetik, ikerketa-fase bat garatzeko eta, bestetik, elkarlaneko prozedurak hasteko. Lehenengoaren bidez, alokairurako etxebizitza babestuak sustatzean sor daitezkeen beharrei erantzuteko sistema industrializatuak aztertu nahi dira. Bigarrenaren helburua da bizitegi-sustapenaren prozesu osoan esku hartzen duten eragileek parte hartzeko prozesuak gehitzea.



Sopelako Asu sektoreko G partzelan alokairurako babes ofizialeko 33 etxebizitza, eranskinak eta urbanizazioa sustatu nahi dira prozesu eta sistema industrializatuekin. Horretarako, 2022ko apirilean, Visesak oinarritzko proiektua eta egikaritze-proiektua idazteko, zuzendaritza eskuduna izateko eta obrak egiteko elkarrizketa lehiakorra argitaratu du.

Elkarrizketa lehiakorraren fasean lizitatzailerek garatutako proposamenak "Gizarte Laguntzako Etxebizitza Industrializatuaren Liburu Zuria" egiteko erabiliko dira.

Jarraian esparru horretan aurreikusten diren lan- faseak xedatzen dira:

1. Merkatuko egoeraren eta sistema industrializatuen bilakaeraren azterketa estrategikoa.
2. Alokairuko etxebizitza publikoko sustapenera egokitze mailaren azterketa:
 - Sopelan alokairurako 33 etxebizitza babestuen sustapenerako elkarrizketa lehiakorra sustatzea.
 - Alokairuko Etxebizitzaren Liburu Zuria sortzea, eta sistema industrializatuen enplegua sustatzea.
3. Sustapenerako lizitazio agiriak berrikustea eta industrializatutako irizpide eta sistemak sartzea.
4. Beste sustapenak hedatzea, sistema industrializatuen erabilera sustatzeko. Industrializatu beharreko sustapenak planifikatzea.
5. Heltzea eta egonkortzea, ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza

ENERGIA-EFIZIENTZIA ETA ERAIKINEN JASANGARRITASUNA

Etengabe aplikatzen ditugun neurri orokorrak honako hauek dira:

- Visésaren berezko diseinu- eta eraikuntza-irizpideak erabiltzea, eraikuntzaren bidez ingurumen-eragina murrizteko.
- 2022an entregatutako sustapenen ziurtagiri energetikoa: % 75 A kalifikazioarekin + % 25 B kalifikazioarekin.
- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzarako Eraikuntza Jasangarriaren Gidaliburua erabiltzea.
- A kalifikazioko (edo goragoko) etxetresna elektrikoak ditugu gure etxebizitza guztietan.
- Kontratazio publiko berdea. Erosketa eta kontratazio berde eta berritzailearen irizpideak integratzea bilatzen dugu, ekonomia lehiakorragoa eta ingurumenaren alde-tik arduratsuagoa finkatzen laguntzeko.
- Ingurumen-kudeaketako sistema ziurtatua izatea (EMAS, ISO 14001 edo antzekoa) obra gauzatzeko zerbitzurako.
- IHOBerekin lankidetzan aritzea, eraikuntzaren sektoreko enpresa publiko baten ordezkari gisa, Ekonomia Zirkularraren 2030 Estrategia zehazteko.

ENERGIA-ZERBITZUAK EMATEA

Energia-zerbitzuak ematen ditugu jabeen erkidegoetan, Energia-zerbitzu enpresa gisa (EZE), ur bero sanitarioa (UBS) eta berokuntza hornitzeko, galdara-gelako mantentze-lanak egiteko eta kogenerazio-instalazioetan sortutako gehiegizko energia saltzeko.

Zerbitzu hori Salburuan (Gasteiz) babes publikoko 242 etxebizitzan eta Laudion (Araba) 203 etxebizitzan sustapenetako jabeen erkidegoetan ematen hasi zen.

Sustapen horiek eraginkortasun handiko mikro-kogenerazioko sistema bat dute (beroa eta elektrizitatea aldi berean sortzea, eta horri esker:

- A kalifikazio energetikoa lortzen dute (CO₂ isuriak eta energia primarioa murriztea), hasierako inbertsioaren kostuari eutsiz.
- Elektrizitatea "in situ" ekoiztea. Garraioan galerak saihesten dira eta hondar-beroa aprobetxatzen da, galdaretan gasa kontsumitzea saihestuz.
- Errentagarritasun ekonomiko handitzea (gaininbertsioaren itzulera-tasa 40 urtetik 10era pasatzen da) galdara-gela handitu gabe eta estalkiak askatuta, eguzki-energiako sistemen instalazioa aurrezten baita. Energia saltzeagatik instalazioetan sortutako gerakinak ekonomikoak jasangarriagoak izatea ahalbidetzen du.
- Jasangarritasun soziala: Erkidegoei urtero ematen zaie instalazioen funtzionamenduaren eta errendimenduaren berri, eta horrek laguntzen die parte hartzen eta energia kontsumitzeko ohitura kontziente eta iraunkorrak sortzen.

Etxebizitza babestuen erabiltzaileak, Visesaren laguntzarekin, sistema energetikoen autokudeatzaile bihurtzen dira, haien funtzionamendua teknikoki eta ekonomikoki optimizatuz.

Honako hauek lortzen dituzte: aurrezpen ekonomikoa, zerbitzu lehiakorraren kostua merkatuarekiko, horniduraren segurtasuna, kudeaketaren kanporatzea eta horniduraren fidagarritasuna.

Zerbitzu hori azken 10 urteetan eman da, jabeen erkidegoekin sinatutako kontratuari jarraikiz.



2021ean Laudioko 2 sustapenekin kontratu-harremana amaitu zen, eta 2022an Salburuako (Vitoria-Gasteiz) sustapenarekin. Visesak amaitutzat eman du energia-zerbitzuak ematea, hamarkada batez erabiltzaileei eta erkidegoei zerbitzua eman ondoren.

Zerbitzu horren itxiera-prozesua mailakatua izan da, auzotarren erkidegoei kudeaketa guztiekin lagundu zaie. Energia-zerbitzuak amaitzearekin batera, instalazioen titulartasuna erkidegoetara itzultzen da berriro. Visaren tutoretzari esker, eta bereziki titulartasuna itzultzeko prozesu horretan, erkidego horiek erabat independenteak dira beren energiaren ekoizpena kudeatzeko.

BERRIKUNTZA-PROIEKTUAK

SmartEnCity (2016-2022) (Horizon2020 I+G Esparru-programa)

Koroatze auzoko 26 erkidegoetan kokatutako 302 etxebizitzaren birgaitze energetikorako proiektua da izan da gure proiektu nagusietako bat. Jarduketa horrekin eraikinen erosotasun termikoa hobetu dugu inguratzaileren birgaitzeari esker eta, beraz, erabiltzaileen bizikaltatea ere hobetu dugu.

Memoria honetako 4.4.4 puntuan proiektu honi buruzko informazioa zabaltzen da.

BIM SPEED (2018-2022)

Proiektu horren helburua da Europako eraikinen birgaitzearen efizientzia hobetzea, bizitza-ziklo osorako informazio integratuko datu-base bat emanez: eraikinari buruzko hasierako informazio-bilketatik hasi eta birgaitzearen ondoren eraikinaren azken errendimendua neurtzeraino.

48 hilabeteko iraupena izan du eta 22 bazkideko partzuergo batek parte hartu du. Koordinatzailea Technische Universitaet Berlin (Alemania) da..

Visesak parte hartu du garatutako tresnak aplikatzeko bi kasu ekarriz: Aldabe 26 eta Manuel Díaz de Arcaya; Europako SmartEnCity proiektuaren esparruan birgaitutako bi eraikin dira.

BIM Speedek birgaitze efizienteagoa ahalbidetzen duten tresnak ematen ditu, faseak BIM (Building Information Modeling) metodologiaren bidez digitalizatuz.

2022ko urrian, Berlinen (Alemania) proiektuaren azken bilera egin ondoren, BIM Speed proiektua amaitutzat eman zen.



ZEHARKAKO JARDUERA

AURRERAPENAK KUDEAKETAN

Kudeaketan berrikuntzarekin eta jasagarritasunarekin dugun konpromisoak aurrerapausoak sortzen ditu, hala nola:

- Erosketa publiko berdeko lhobe buru duen taldean parte hartzea. Ingurumen-irizpide baloragarriak sartzea eraikuntza-hornitzaileen lizitazioetan, kontratazioetan eta erosketetan, eta obra-zuzendaritzan, proiektu arkitektonikoetan, argitalpenetan, bulegoko materialean (papera), cateringean, ibilgailuetan, garbiketan eta mezularitzan (girotzea).
 - Erosketa publiko arduratsuan aurrera goaz, Euskal Autonomia Erkidegoko Laneratzeko Enpresen Elkartean eta Enplegu Zentro Berezien lankidetzarekin, kolektibo zaugarri horientzat gorde daitezkeen kontratuak planifikatzeko.
 - ISO 9001 ziurtagiria berritu dugu, arauaren bertsio berrietara egokitzeko.
 - EMAS ingurumen-erregistroa berritu dugu.
 - Jasagarritasun Memoria berria argitaratu dugu.
 - Aurrera goaz gure kudeaketa-printzipioei inspirazioa eta koherentzia ematen dieten politiken ezarpenean.
 - Ekoizpen Taula eta lotutako adierazleak astero automatizatuta lortu dugu, Business Intelligence tresna erabiliz, sustapenen egoeraren jarraipena astero egiteko sistematika berri bat oinarritzat hartuta.
 - Office 365 tresna sendotu dugu, komunikazio eta koordinazio operatibo hobea ahalbidetzeko.
 - Datuak babesteko kanpoko auditoretza egin dugu, eta emaitza ona izan du.
 - "o akats" izeneko proiektuko ekintzak sendotu ditugu, etxebizitza-premiari erantzuteko, etxebizitzaren kalitatea hobetzeko eta eraikuntza- eta erabilera-patologiak saihesteko helburuak ezartzea ahalbidetuko duten hobekuntzak identifikatu eta ezartzeko.
 - BIM metodologiako pilotuan aurrera goaz, Barakaldoko sustapen batekin, bai eta etorkizuneko lizitazioetarako Visasaren estandarra zehaztean ere.
- Delituen Prebentzioa Kudeatzeko Sistema sendotu dugu.
 - Gobernu Korporatiboaren Kudeaketa Sistema ezartzea.
 - Kapitalak Zuritzea eta Terrorismoa Finantzatzea Prebenitzeko Eredua aplikatzen jarraitzen dugu.
 - Erosketa Publiko Berdeko zein Ekonomia Zirkularreko lhobeko taldeetan parte hartzen jarraitzen dugu.
 - Alokabiderekin eta Etxebizitza Sailarekin batera lan egiten dugu etxebizitza sozialaren prozesua eta produktua hobetzeko, bai proiektuaren fasean, bai obraren gauzatze-fasean, gero ustiatu eta mantentzeko.
 - Etxebizitza Sailburuordetza buru den Lurzoru Batzordean parte hartzen jarraitzea.
 - BMS (Building Management Systems) eremuan lan egiten dugu. Higiezinak monitorizatzeke eta kudeatzeko sistema.
 - Industrializazioa - 1. fasea: merkatuaren egoeraren azterketa estrategikoa eta sistema industrializatuen bilakaera.
 - Ziurtagiri energetikoa (2021ean entregatutako sustapenak): % 80 A kalifikazioarekin + % 20 B kalifikazioarekin.
 - Bitarteko artxiboari buruzko auditoretza eta beharrezko ekintzak egin ditugu.
 - Dokumentuen kudeaketa antolatzeko hainbat prozedura onetsi ditugu.
 - Hainbat dokumentu-sail Dokusi Eusko Jaurlaritzako dokumentu-kudeatzailearekin integratu ditugu.
 - Aplikazioen eta azpiegituren berrikuntza teknologikoari eta eraldaketa digitalari hasiera eman diogu, besteak beste: presentzia kontrolatzeko eta ordutegi-kontrolerako sistema berriak, azpiegitura monitorizatzeke sistema, sinadura digitalaren hedapena, e-tramitazio sistemen hasiera, segurtasun-kopien sistema berritzea.
 - Komunikabideei eta hainbat ekitaldi publikori arreta ematen diogu.
 - Kopuruak eta erreklamazioak berreskuratzeko proiektuan lanean jarraitzen dugu, eta 22 sustapenentarako erreklamazioak jarri ditugu martxan, 11,6 milioi eurokoak.



**AINZATE SPENAK ETA
SARIAK- BILTZARRAK
ETA JARDUNALDIAK -
ARGITALPENAK**

GURE LANAREN AINTZATESPENAK

2022an, Visesak honako aintzatespen hauek jaso ditu:

QIA Quality Innovation Award:

- Euskadiko irabazlea (2021) SmartEncity-Koroatzea: Sustatzaile ordezkaria eta giltza eskura.
- Prize aintzatespena nazioarteko fasean.

Advanced Architecture Awards – Rebuild:

- "Jasangarritasunaren, deskarbonizazioaren eta eraikinaren energiaren autosorkuntza handiagoaren Aldes sariaren" finalista, alokairuko etxebizitza sozialen parke berria elektrifikatzeko proiektu berriztagarriatik.

ARGITALPENAK ETA PRESENTZIA KOMUNIKABIDEETAN

2022an honako ekintza hauek egin ditugu:

- 2022ko otsaila: David Grisaleñaren eta Nerea Morgadoren parte-hartzeak Cadena Ser, Radio Vitoria eta Radio Euskadin, Aldabe auzoko bizilagunentzako (Vitoria-Gasteiz) Koroatzea-SmartEnCity proiektuari buruzko komunikazio-saioa dela eta.
- 2022ko martxoan: Elkarrizketa Carlos Quindós Visesakozuzendari nagusiaraino Brainsre aldizkarian.
- 2022ko apirila: Nerea Morgadoren parte-hartzea "Una máquina para vivir- la casa del futuro" artikuluan, Nafarroako Unibertsitateak argitaratutako "Nuestro Tiempo - Habitar el 2050" aldizkarian.

BILTZARRAK/ JARDUNALDIAK

2022an honako jardunaldi edo biltzar hauetan parte hartu da:

- 2022ko urtarrila: Euskal Herriko Unibertsitateko Etxebizitza Masterrean parte hartzea.
- 2022ko otsaila: Aldabeko Auzogunea. Koroatzea-SmartEnCity proiektuari buruzko komunikazio-saioa Aldabe auzoko bizilagunentzat (Vitoria-Gasteiz).
- 2022ko maiatza: Hitzaldia Corken (Irlanda) egindako Intensify proiektuaren tailerrean: "Visesa as "Delegated Promoter" in Coronación (Vitoria Gasteiz) One stop shop experience".
- 2022ko maiatza: Hitzaldia Intensify proiektuaren tokiko tailerrean: "Rehabilitación y regeneración urbana del barrio de Coronación de Vitoria Gasteiz".
- 2022ko ekaina: Europako SmartEnCity proiektuaren azken hitzaldia Vitoria-Gasteizko Europa Jauregian.
- 2022ko ekaina: Hitzaldia IRIS Smart Cities proiektuak Utrecht (Herbehereak) antolatutako Scalable Cities jardunaldian: "De las soluciones al cambio de sistema".
- 2022ko ekaina: Visesen parte-hartzea Workshop-ean: "Encuentro Digital Consejo Unidad Tecnalia".
- 2022ko uztaila: Hitzaldia Creativity World Forum jardunaldian: Innovative Solutions for Smart & Sustainable Cities. Online.
- 2022ko uztaila: Hitzaldia UPV/EHUren "Euskal Herriko eraikinen eta etxebizitzak birgaitzearen aldeko apustua" udako ikastaroan "Visesak eragile birgaitzaile gisa duen ralar" buruz (Bilbo).

- 2022ko uztaia: BIM GTO Eraikune Batzordeari laguntzea.
- 2022ko urria: "EHAE0: Sorkuntza, Hiria, Paisaia: Bizitzeko era berriak" jardunaldian parte hartzea (1. eta 2. saioak)
- 2022ko urria: "SmartEnCity Koroatzea" proiektuari buruzko hitzaldia, DROP proiektu europarraren tailerlean (Ermua).
- 2022ko azaroa: "2022-2036 Euskadiko Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala" jardunaldira joatea Euskalduna Jauregian (Bilbo).
- 2022ko abendua: Hitzaldia "Vitoria-Gasteizko Koroatze auzoa Smartencity district heating sistemarekin. HORIZON 2020 programa" AVS biltzarrean (Valentzia).



Ezin dugu memoria hau itxi gure esker ona adierazi gabe Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari, egunero elkarrekin lan egiten dugun enpresa laguntzaile eta hornitzaileei, Visesako langileei, herritarrei... gure etengabeko hobekuntza-prozesuan laguntzen diguzuelako, bizitza-proiektuak garatzea ahalbidetuko duten etxebizitzak eskaintzeko helburu bakarrarekin. Eskerrik asko zuen konpromisoari, jardunari eta inplikazioari esker; izan ere, Euskadik urtez urte aurrera egitea ahalbidetzen dute, etxebizitzaren arloko erronka handiei erantzuteko, eta etxe bat izateko eskubidea errealitate bihurtzen duzue pertsona askorentzat.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA ETA
GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES

